



**Lore eta
landare azoka
Seguran**

**Goierri
Motorkluba**



Migdaïla

UdaberriaUda2003

Tel. 943 027 363 • Oriamendi, 29 • 20200 Beasain • Gipuzkoa

JOSEF FONT - TANIA DEL VIEJO
DILLY - CELIA VELA - VICTORIO Y LUCCHINO
LOLA MENTO - DEVOTA Y LOMRA - IKKS
INFINITIF - TERRE & MER - LACOSTE
MACHU PICHU - MATINIQUE - CALVIN KLEIN
CARMEN RANLAN - DANIEL ESPINOZA
MICHAEL NERIN - LULLIPOPS - ELABENCO



SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteazkena zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Urte
guztian
zehar
zabalik



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEBI

ASTELEHEN

GAUETAN

ITXITA



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA

Astearte eta asteazkenetako
prezio berezia:

Bakailau tortila, txuleta, gazta,
menbriloa, intxaurrek eta
Sagardoa txotxeik

14

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gabea

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz goatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Iñaki Gurrutxaga

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Sorraluze, Agurtzane Bikuña, Aitor Tello, Iñaki Ugalde, Aimar Maiz, Miren Askasibar eta Xabier Mendiguren Elizegi.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Unai Elorriagaren bigarren liburuaz gain Igartz VI. literatur bekaren oinarriak aurkeztu dituzte

Martxoaren 7an aurkeztu zuten Donostian eta Beasainen idazle berriei zuzenduriko VI. Igartz literatur sorkuntzarako beka. Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin antolatzen duen beka da hau, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz. Bekak 6.000 euroko diru-laguntza izango du.

Deialdi honetara, narratibako lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak. Lana entregatzean 35 urte bete gabe izatea eta aurretik lan argitaraturik izatekotan, bakar-kari bi liburu argitaratuak ez izatea.

Proiektuak 2003ko uztailaren 1era arte bidal litezke Beasaingo Udaleko Eus-

kara Zerbitzura. Julen Gabiria, Jasone Osoro (aurreko ekitaldietan saritutako bi idazle gazte) eta Xabier Mendiguren Elizegi izango dira epaimahaia osatuko dutenak. 2003ko irailaren 6a baino lehen emango dute jakitera irabazlearen izena. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitatez ez dutela iritzi gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaioek.

Elorriagaren 'Van't Hoffen ilea'

Aurkezpen horretan Unai Elorriaga idazle algortarrak Elkar argitaletxearen eskutik kaleratu berri duen 'Van't Hoffen ilea' liburuak aurkeztu zuten. Elorriagak Igartz Saria eskuratu zuen iaz, eta orduan jasotako bekaz baliatu da bere bigarren liburuak argitaratzeko. Bere lehen liburuarekin, 'SPrako tranbia', Espainiako Narratiba Saria irabazi du Elorriagak. Hirugarren nobela idazten ari da orain.

**Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat,
posta gastuak ordaintzeko tarifak:**

Hego Euskal Herria eta Espainia:

urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa:

urtean 24 euro

Europaz kanpo:

urtean 36 euro



Etxegarateko bikoizketa lanak amaitu dira, ia bi urteko atzerapena eta gero

Etxegarateko portuak Nazioarteko errepide sareko enbutu izateari utzi zion martxoaren 7an, egun horretan bukatu baitziren zirkulazioari irekitzeko falta zen zatiko lana. Hogei hilabeteko atzerapenarekin Etxegarate autobidean bihurtu da. Bikoizketa lan hauek buruhauste handia suposatu dute auto eta kamioi gidarientzat, baita agintari politikoentzat ere. Istripu asko gertatu izan dira azken urte hauetan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Sailak zortzi aldiz atzeratu behar izan ditu lanak. Hori dela eta, Diputazioako departamendu honek bost lerrotako idatzi bat bakarrik kaleratu zuen ostiral horretan. Kasu hauetan normalena izaten da espero handiko inaugurazio ekitaldi bat antolatzea, baina hau ere atzeratu egin dute hautsak noiz lasaituko zain.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1999ko martxoan adjudikatu zizkien lan hauek ondoko enpresei: Ferrovial, Agroman, Gedi, Amenabar, Sukia eta Asfaltos Naturales de Kanpezuri. Orduko aurrekontua ia 7.500 milioi pezetakoa zen. Enpresa eraikitzaile hauek 26 hilabeteko epean lanak amaituko zituztela agindu zuten, baina hori ez da hala izan. Garraio eta Errepide departamenduak urte hauetan eman dituen azalpenen arabera, atzerapen hauek hainbat arrazoigatik gertatu dira. Atzerapen horien erantzule nagusia lurraren ezegonkortasuna izan da. Arazo hau ez zen aurreikusten hasierako proiektuaren azterketan. Beste arazo bat bidearen hobekuntza izan dela esan du Diputazioak, eta azkenik, lanak eta zirkulazioak bateratzea lan zaila izan dela argudiatu dute. Guztira 8,5 km. egin dira, eta tartean 180 eta 250 metroko bi tunel, eta 300 metro luze den zubi bat. Orain arte 12.000 ibilgailu inguru igarotzen ziren egunean Etxegarate-tik, eta bikoizketa amaituta 14.000ra igotzea espero da.



Goierriko gida turistiko eta web gune berria aurkeztu ditu Goiturrek

Martxoaren 5ean aurkeztu zen Segurako Ardixarra etxean Goierriko Gida turistiko eta web gune berria. Luli Telleria Segurako alkatea, Koro Garmendia Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburutzako ordezkaria eta Nikolas Osinalde Goiturreko arduraduna izan ziren aurkezpen ekitaldian parte hartu zutenak. Horiez gain, Goierriko hainbat udaletako ordezkari egon ziren aurkezpenean.

Aurkezpen hori orain dela urte batzuk gauzaturiko Garapen Turistikorako Egitasmoan kokatzen da. Egitasmo horren filosofian aisialdi eta turismo zirkuitu ekonomiko bat jorraztearen beharra ikusten zela adierazi zuten, etorkizunari begira lanpostuak sortuko dituenak. Produktu berri hauek eskualdeak dituen errekurtso eta argumentu turistiko desberdinak laburbiltzen dituzte: artea, kultura, historia, festak, tradizioak, natura, turismo aktiboa, gastronomia eta alojamenduak.

Egitasmo berri honek honako helburuei erantzuten diela adierazi zuen Osinaldek agerraldian: "Aterki zabal bat irudikatzen duen produktua handitzea eta sendotzea, gure produktu turistikoak pakete batean eskaintzea eta 'turismo de negocios' delakoa guregana erakartzea, teknologia berriak eskaintzari aplikatzea, turistari eta enpresetako bisitariei informazioa gida bakar batean erraztea, eta Goierri gure lehen merkatura gerturatzea katalanaren bidez".

Ohikoa den moduan, Goierriko gida turistikoa 'Goierri, astebete eta zerbait gehiago' leloarekin kaleratu da hiru hizkuntzatan: euskara, gaztelera eta katalana. Aizkorri eta Aralar mendikateen artean dagoen gure eskualdearen berri zuzena ematen du. Web guneak, bere aldetik, www.goierri.org helbidea du, eta orain artean Goiturrek kaleratu dituen esku orri guztiak biltzen ditu. Horrez gain, Goierri Fundazioaren eta Goieki Garapen Agentziaren berri ematen du.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIK, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau behar den datuak orain 12 euro kobatzeko zuzkie postu gastuak ordaintzeko


Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**



Biosasietak lehen urtea bete zuen otsailean, balantze baikorrarekin

Iazko urteko otsailaren 28an Sasieta zaborteagiko gasa us-tiatzeko planta jarri zen abian. Planta hori sortzea 718.000 euro kostatu zen, eta hori gauzatu ahal izateko, BioSasieta S.A. elkarteak sortu zuten erdibana Sasieta Mankomunitate-ak eta Energiaren Euskal Erakundeak.

Zaborrak usteltzean gasa sortzen da. Gas horren konpo-saketaren erdia metanoa da, butanoaren oso antzekoa, eta ondorioz erregai moduan erabili daiteke. Gas hori egokitu ondoren, motor batera joaten da. Motor honek bere ardatza gasoilarekin eta gasolinarekin mugitu beharrean gas hone-kin egiten du. Ardatzak aldi berean alternadore bati bueltak ematen dizkio eta honek argindarra sortzen du. Argindar hau sare elektrikora bidaltzen da eta ondoren gure etxeeta-ra ailegutzen da.

BioSasieta plantak 475 Kw-tako edo 646 zaldi-poten-tziako motore alternadorea dauka. Bete berri den lehenda-biziko urte honetan 3,05 milioi kilobat ordu sortu dira. Kal-kuluen arabera, potentzia honekin 4.000 biztanleren beha-rrak asetu dira, eta ekoizpen honek 205.900 eurotako diru-sarrerak eman ditu. Planta honen grafikoak eta funtziona-mendua www.sasieta.net web gunean topa ditzakezue.

Ikaspilota Topaketak egin ziren otsailean Ordizia, Beasain eta Lazkaon

Urtero bezala pilota topaketak egin ziren otsailaren 19an Or-dizia, Beasain eta Lazkaon, Ikaspilotak antolatuta. Topaketa hauek L.H. 5. mailako ikasleentzat izan ohi dira eta pilota sustatzeaz gain, ikasleen arteko harremanak indartzea eta goiz eder bat igarotzea ditu helburu. Ordiziako Topaketan San Benito ikastolako, Ugarte herri ikastetxeko eta Jakintza ikastolako 103 hurrek hartu zuten parte. Aurreneko zatian bi pilotalekutan aritu ziren, eta bertan pilota jolas desberdinak ezagutu zituzten. Bigarren zatian ikasle guztiak Ordiziako pilotalekuan elkartu ziren eta ikastetxeen arteko lehiaketa moduko bat egin zen. Beasaingo Topaketan, berriz, Muru-mendi, San Andres, Laiotz, Atxuri eta Alkartasunako 97 ikas-lek parte hartu zuten, eta Ordizian egin ziren moduko ekital-diak antolatu ziren.

Xanti Auzmendik urrezko domina irabazi zuen Europako beteranoen txapelketan

Xanti Auzmendi jostun lazkaotar ezagunak urrezko domina irabazi zuen martxoaren 9an Donostian jokatu ziren Atletis-moko beteranoen Europako txapelketan, 800 metroko saioan hain zuzen ere. 60 urtetik gorako mailan aritu zen eta bi mi-nutu eta 24 segundo behar izan zituen lana bukatzeko.

Mertxe Urteaga arkeologoak diploma jaso du Lazkaoko udaletxean

Arkeolango zuzendari Mertxe Urteagak 'Real Sociedad Bas-congada de Amigos del Pais' elkarteak sartzeko diploma jaso zuen martxoaren 2an Lazkaoko udaletxean. Urteaga arkeolo-gia romanoan eta urbanoan espezialdu da azken urteetan, eta Arkeologia emozionalari buruzko lana aurkeztu zuen bere sa-rrerako idazkia irakurtzearekin batera.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

943 88 51 68

ORMAIZTEGI

Argitarapen honen edizioiko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Egunkariarekiko elkartasunez

Une zail eta latz hauetan, gure lehen hitza elkartasuna da. Adierazpen hau sinatzen dugun Euskal Herriko komunikabideetako arduradun, profesional eta langileok, lehen-lehenik, elkartasuna adierazi nahi diegu zentzugabekeriaren atzaparrak sentitu dituzten Euskaldunon Egunkariako arduradun, arduradun ohi eta gainerako lagunei eta haien hurbilekoei, bizi izan duten egoera bidegabeagatik eta batzuek jasan duten tratu umiliagari eta lazgarriagatik. Halaber, gogoan ditugu bizibidea ebatsi dieten Egunkariako langile guztiak, baita kaltetuak izan diren beste komunikabideetako lankideak ere. Gure elkartasunezko berotasuna helarazteaz gain,

adierazi nahi diegu amesgaizto hau amaitzeko gure konpromisoa ere badutela.

Atxiloketak eginez, miaketak eginez, tratu txarrak ezarritz espetxeratzeak aginduz, bermeak ezarritz eta Egunkaria itxiaraziz, oinarritzko eskubideak urratu dituzte, adierazpen askatasuna, informazio eskubidea eta hizkuntz eta kultur aniztasuna zuzen-zuzenean jo dituzte. Euskarazko komunikazio esparru zabal eta irekia hesitu dute, euskara pizteko tresna garrantzitsu bat itzali dute eta euskal herritarren nortasun ikurretako bat kolokan jarri dute.

Hau guztia ikusirik, herritar eta kazetaritzan ari garen guztion oinarritzko eskubideen, adierazpen askatasunaren, informazio eskubidearen al-

deko konpromisoa agertu nahi dugu, euskara eta euskal kultura bultzatzen jarraitzeko asmoarekin batera. Bide horretan, Euskaldunon Egunkariaren beharra aldarrikatu nahi dugu, eta hori posible izan dadin, gure laguntza eskaintzen dugu.

*Euskal Herriko hainbat
komunikabideetako ordezkariak
(GOIERRITARRAKO langileok eskutitz
honekin bat egiten dugu)*

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

943 30 35 55 / 943 30 35 54

635733389 / 635733388

telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

www.egunero.info/harpidetza

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Dirulaguntzak: 3035 0092 56 0920055559

Egunero

Zer egin dezaket nik ingurumenaren alde?

Gehienetan, ingurumenaren alde egin ditzakegun gauzen zerrenda idazten hasten garenean, helburu exotikoak etortzen zaizkigu burura, edo hurbilekoak direnean, ia bete ezinak direnak. Honela, Amazoniako basoak babesteko diru laguntzak ematea pentsatzen dugu, edo gure esku dagoen gauza bakarra autoa saldu eta batere gabe bizitzea dela iruditzen zaigu. Burutapena sortu orduko trabak ikusten hasten gara: bai, baina, Amazonia babesteko nire dirua jasotzen duten horiek, ez ote dute ba beste zerbaitetan gastatuko? Eta nola egingo dut ba lan autorik gabe, nire furgonetaz supermerkatuak barazkiz hornitzen aritzen bainaiz?

Denboran eta espazioan oso urrun, edo gure ahalbideetatik at dauden helburuak jartzeko tentazioa izaten dugu, bizitzako beste atal askotan egiten dugun moduan. Gakoa, noski, eguneroko bizitzan egiten ditugun gauza txikiei erreparatzea da. Beti izango dira alda ditzakegun ekintza txikiak. Egia da ekintza txiki horiek ez dituztela historiako liburuetan "ozono-geruzako zuloa konpondu zuen gizona", edo "katamotz iberiarra galtzetik salbatu zuen emakumea" esanez jasoko, baina minuskulaz idatzitako historia jende arruntak egiten du, ekintza arrunten bidez. 'Operación Triunfo'-ren gaitzak jota dagoen gizarte honetan, ez da erraza inoren arreta eta begirunea piztuko ez duten ekintza xumeen alde aritzea, baina ingurumenaren auzia esku txiki zein handietan dago.

"Ezin dugu ahaztu historian maiuskulaz idatzi diren ekintzen artean mordoxka bat esku txiki asko norabide berdinean lanean jarri ondoren sortu zirela."



Bizitzaren zatirik arruntenean, egunero egunero egiten ditugun gauzetan, zer alda dezakegu? Zuzenean gure esku dauden ekintza horietako gehienek baliabideen erabilerarekin, eta kutsadurarekin erlazioa dute. Adibidez, ur gutxiago kontsumitzeko ahalgintza egitea baliabide horren erabilerarekin dago erlazionatua, eta aldi berean, kutsadurarekin eta beste baliabide energetiko batzuen erabilerarekin dago erlazionatua, erabilia izan den ur guztia ibaietara bueltatu aurretik garbitu behar baita. Etxea berotzeko erabilitako gasa edo argindarra kontsumoa murrizteak baliabide horien erabileran eragina izateaz gain, kutsadura atmosferikoa gutxituko du. Bilduki gutxi duten produktuak aukeratzean, eta papera, ontziak eta beira birziklatzean, zabor gutxiago sortzen da, lehengai gutxiago kontsumitzen da, gutxiago kutsatzen da, zaborrak deuseztatzen energia gutxiago behar da, eta ondorioz beste baliabide batzuk aurrezten dira. Hala, zaborteak egiteko lur gutxiago behar izaten da. Trenet edo autobusez egin ditzakegun bidaietan autorik ez erabiltzean antzeko ondorio positiboak sortuko ditugu. Zerrenda oso luzea da.

Gainera, ingurumenaren aldekoak diren ekintza txiki horietatik gehienak gure osasunaren aldekoak dira. Adibidez, kutsadura atmosferikoa arnasbideen gaixotasunekin eta alergen hedapenarekin erlazionatzen da. Azkenik, ezin dugu ahaztu historian maiuskulaz idatzi diren ekintzen artean mordoxka bat esku txiki asko norabide berdinean lanean jarri ondoren sortu zirela.

Miren Askasibar Bereziartua

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

GARAIAN GARAIKOA

✓ **Landa inguruan Energia berriztagarriei buruzko jardunaldiak.** Energia berriztagarrien erabiltzaileen elkarteak sortu berri da eta *Argi ta Garbi* izena du. Landa inguruko jendea dago sartuta, besteak beste, beren ustiapen kostuak gutxitu nahi duten edota beren baserritara argi indarra eraman nahi duten baserri-tarrak.

Argi ta Garbi elkartearen helburu nagusia energia berriztagarrien erabiltzaileei informazioa eta aholkua ematea da, hain zuzen ere, hain sektore berria den honetan, ahal den informaziorik zuzen eta zehatzena ematea, eta aldi berean, administrazioen aurrean erabiltzaile hauen interesak babestea eta ordezkatzeko.

Argi ta Garbi elkarteak jardunaldiak antolatu ditu landa inguruan energia berriztagarriei duden ahalmenak, arazoak eta egungo egoera aztertzeko. Jardunaldiak apirilaren 5 eta 12an izango dira, arratsaldean, Elgoibarreko Aubixa baserrian (San Pedro auzoan). Izena eman nahi duenak -dohain da- edo informazio gehiago nahi duenak www.argitagarbi.com webgunera edo 943603704 telefono zenbakira jo dezake.

LIBURUA

✓ **Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan 2002.** Ingurumen Adierazleak. Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 10.zk, 2002ko urrian Eusko Jaurlaritzak argitaratua. EAEko ingurumen-bilakaeraren berehalako ikuspegia eta gaur egungo desorekak zein joerak jasotzen ditugutalpen honek.



Xabier Mendiguren Elizegi

Ez da atzera begira geratzeko unea; ezta, oso triste eta haserre gaudela-eta, mardikazioka edo buru-makur gelditzeko ere. Aurrera egin beharra dugu, gogoz eta indarrez; hala eta guztiz utzidazue, momentu batez bada ere, gure iragan hurbilari erreparatzen eta Egunkaria sortu zeneko garaia oroitzen, irakurleen artean izango baitira gatzetxoak –zorionez!– sasoi haiek eta bere gorabehera txoak ezagutu ez zituztenak.

1990eko abenduaren 6an kaleratu zuen Egunkariak bere lehenengo zenbakia. Konstituzioaren eguna zen –ez da oso ondo portatu gurekin zorioneko konstituzio hori– eta Durangoko Azokaren hasiera. Gaur egun natural eta berezkoa iruditzen zaiguna –euskarazko periodiko bat– nekez eta kostata jaio zen orduan. Urteak ziren euskal prentsak proiektu hori aldarrikatzen zuela, baina agintarien aldetik luzapenak eta aitzakiak zetozen beti. Azkenean, norberak egin ezean babak eltzetik inork aterako ez zizkiola ohartuta, mugimendu euskaltzale osoa antolatu zen, 1989 amaiera aldean, egunkari bat sortzeko.

Ez zen egiteko erraza izan: jende asko behar zen, azpiegitura, dirua. Urte osoan zehar etengabea izan zen prestatze-lana, maila guztietan: ekonomikoan, produktioan, baita herriz herri ere, batzordeen mobilizazioaren bitartez, akzionistak eta laguntza lortzeko, euskal jendeari kontzientzia pizteko eta egunkariaren beharraz konbentzitzeko. Aldi berean, proiektua indarra hartzen ari zela ikusita, Eusko Jaurlaritza bidean harriak jartzen hasi zen: politikazko pozoia barreiatzen eta egunkari instituzional baten asmoarekin bazterrak nahasten.

Atzera pauso bi, aurrera hogeita bi

Batasunaren ordua da hau, ordea, ez inor atzamarrez seinaltatzekoa. Borondate txarrez jokatu zuten ez gainera izango zen, bestalde, zalantza serioak zituenik: kazetaritzazko euskara landu eta garatu gabe zegoela zioten batzuek, Egunkaria egin behar zutenak gazteak eta prestakuntzarik gabeak zirela, iritzi guztiekin ez zela zabal eta orekaz jokatu, edukiz oso pobrea izango zela emaitza beste periodikoen aldean eta aski irakurlerik ere ez zuela bereganatuko... Modu bakarra zegoen beldur horiei erantzuteko: lanean jarri eta gogor ekitea, bestela beste dozena bat urte pasako genukeen, une egokia iritsi zen edo ez eztabaidan.

Egunkari bat altxatuko dugu berriz ere, ziur nago horretaz, baina ez dugu horrekin konformatu behar: kiosko osoko periodikorik onena eta irakurriena euskarazkoa izatea lortu behar dugu noizbait.

Gaur inork ez du zalantzarik euskara gai dela eguneroko prentsarako, kazetari guztiz trebeak dituela, produktu oso on bat egin eta informaziorik zintzoena ematen dutenak, eta dextenteko multzoa osatzen dugula euskal prentsaren aukera egin dugunok. Dena ez da berez etorri, ahalegin handiak egin behar izan dira egiazko zailtasunei eta ustezko mamuei aurre egiteko. Gure kalkuluetan ez zen sartzen, halere, gau batean Espainiatik 300 guardia zibil etorriko zirenik, hainbat lan eta diru kostatakoa hankapean zapaltzera, eta Egunkariari bizia ematen eta eusten gehien ahalegindutako hamar lagun atxilotzera.

Ez daukat hemen del Olmo epailearen argudioak aletzen hasteko tokirik. Gauzen nondik norakoa apur bat ezagutzen duenak berehala antzemango dio gezurra eta zikina besterik ez dagoela hor. Atxilotu ondoren libre gelditu direnetako batzuk komentatu zidan, Egunkaria zutik jartzeko dirua nondik etorri den galdeztzen ziotela behin eta berriz poliziek; euskaltzaleek herriz herri jarritakoa zela errepikatzen zuen berak beti, eta besteek ez sinesten, edo sinetsi nahi ez.

Aurrera egiteko garaia dela esan dugu, dena dela. Orain dela hamahiru urte baino hobeto gaude gainera. Gauza gara egunkari on bat egiteko, eta inork ez du zalantzan jarriko. Baliabideak eta tresnak behar ditugu, lehenbailehen martxan jartzeko, eta haserrearen beroaldia aprobe txatu, orain arte irakurle izan ez diren euskaldunak geureganatzeko. Baterako nahiz besterako, herriarregana jo beharko da beste behin, herrietako nahiz lantegietako batzordeetan antolatuta, jendearen laguntza eskatzeko: dirua bildu, harpidedunak lortu, gure nagikeria erdaltzaleak astindu...

Egunkari bat altxatuko dugu berriz ere, ziur nago horretaz, baina ez dugu horrekin konformatu behar: kiosko osoko periodikorik onena eta irakurriena euskarazkoa izatea lortu behar dugu noizbait, idazle, irakurle eta iragarleen partaidetzarekin; Tolosaldean debalde banatzen zen herri-informaziozko egunkaria bezalako proiektuak bultzatu eta gauzatu behar ditugu eskualde guztietan, zer esanik ez Goierri; euskal komunikabideen sare indartsu bat eratu behar dugu, bere buruaren jabea eta herri gisa aintzat hartuko gaituena... Gauza asko daukagu oraindik egiteko. Has gaitezen lanean.

P.D. Eta polizia atzera agertu eta berriz itxen badigute egunkari berria? Gaur positibo izan nahi nuen, baina halako aukera ezkorrak ere aintzat hartzekoak dira, faxismoaren piztia gero eta harroago eta gosetiago dabil eta.

Egunkarian 14 goierritar ari ziren lanean

Otsailaren 20an Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkariaren aurka egindako polizi operazioaren ondotik, asko eta asko izan dira euskarazko egunkaria bakarra ixtearen aurkako gaitzespenak. Konpromisoa izan dute guztiek hizpide. Egunkariako 149 langile gelditu ziren egun hartan kale gorrian, horietatik 14 goierritarak. Egunkariaren ordezkariek legalek martxoaren 5ean aurkeztu zuten Lakuan 149 langile horiek langabeziara bidaltzeko erregulazio espedienteak, Juan del Olmo epailearen erabakiaren zain egon gabe. Batzuk langabezia saria eskuratu ahal izan dute, baina amatasun bajaran zeudenak edota eszedentzian zeudenak, agian ez dute langabezia saria kobratzerik izango. Pantxike Agirre ordiziarraren kasua da azken hori.

Lorea Agirre Dorronsoro

Beasaindarra. 34 urte.

Noiztik Egunkarian: Hasieratik, 1990eko abenduak 6.

Zein lanetan: Kultura erredaktore buru eta zuzendariorde izana. Gaur egun kazetari-tza estiloaren gaineko formakuntza arduraduna.

Pantxike Agirre Iturriotz

Ordiziarra. 35 urte.

Noiztik Egunkarian: Hasieratik, 1990eko abenduak 6.

Zein lanetan: Politika eta iritzia sailak. Gaur egun eszedentzian.

Idurre Eskisabel

Larrañaga

Beasaindarra. 32 urte.

Noiztik Egunkarian: 1991-ko ekainetik. Lehen bekario taldekoa da.

Zein lanetan: Igandeko KZ gehigarriko arduraduna.



Zutik: Beni Zeberio, Nagore Etxeberria, Ekaitz Aiertza, Idurre Eskisabel, Jon Ordoñez, Josune Agirre eta Ainara Gorostizu.

Makurtuta: Agurtzane Apaolaza, Koldo Aldabe, Enekoitz Telleria, Pantxike Agirre eta Lorea Agirre. Argazkian Gurutze Izagirre eta Laura Caballo falta dira.

Koldo Aldabe

Ataundarra. 32 urte.

Noiztik Egunkarian: 1991-ko ekainetik. Lehen bekario taldekoa da.

Zein lanetan: Iritzia sailean.

Benita Zeberio Aierbe

Ataunen jaioa, Ordizian bizi da. 41 urte.

Noiztik Egunkarian: 1991-an lehen urteurrenako kanpainan hasi zen lanean.

Zein lanetan: Publizitate sailean, administrazioan.

Enekoitz Telleria

Segurarra. 29 urte.

Noiztik Egunkarian: 1997-tik.

Zein lanetan: Kirol sailburu.

Jon Ordoñez

Beasaindarra. 26 urte.

Noiztik Egunkarian: 1999-ko uztailetik.

Zein lanetan: Kirol sailean.

Nagore Etxeberria Pikabea

Itsasondarra. 24 urte.

Noiztik Egunkarian: 2000-ko uztailetik.

Zein lanetan: Xingola gehigarriko arduraduna.

Gurutze Izagirre

Ormaiztegiarra. 28 urte.

Noiztik Egunkarian: 2000-ko urritik.

Zein lanetan: Bi urtetan 'zie-rrean', gaur egun politikan.

Ainara Gorostizu Muxika

Ataundarra. 21 urte.

Noiztik Egunkarian: 2001-eko irailtik.

Zein lanetan: Kultura saileko erredaktore.

Laura Caballo

Lazkaotarra. 22 urte.

Noiztik Egunkarian: 2002-ko martxotik.

Zein lanetan: Telemarketing-ean.

Josune Agirre Dorronsoro

Beasaindarra. 38 urte.

Noiztik Egunkarian: 2003-tik.

Zein lanetan: Giza baliabi-deak.

Agurtzane Apaolaza Berasategi

Ormaiztegin jaioa, Ordizian bizi da. 32 urte.

Noiztik Egunkarian: 2003-ko otsailetik.

Zein lanetan: Marketing sailean.

Ekaitz Aiertza Salaberria

Zaldibitarra. 27 urte.

Noiztik Egunkarian: Egunkaria itxi baino 3 egun lehenago hasi zen.

Zein lanetan: Komertziala.


Egunkariako 149 langile horiez gain, autonomo edo kolaboratzaile modura aritzen ziren beste hainbeste lagun gelditu dira langabezian, dagokien diru sari kobratu ezinik.

Egunkariaren aurkako operazioaren ondoren Txema Auzmendi ordiziarra preso

Otsailaren 20an Euskaldunon Egunkariaren aurkako polizia operazioan atxilotu zuen Guardia Zibilak Txema Auzmendi ordiziarra. Bost egun inkomunikatuta igaro ondoren, Soto del Real espetxean sartzeko agindua eman zuen Juan del Olmo epaileak. Auzmendik ez zuen deklaratu nahi izan, konfidantzazko abokatuarekin ez bazen.

Hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkariaren aurkako operazioan. Horietatik lau bermepean aske uzteko agindu zuen Juan del Olmo epaileak, eta beste sei espetxean sartzeko. Horietako bat da Txema Auzmendi ordiziarra. Egun, Soto del Real espetxean dago, eta martxoaren 14an deklaratzeko zen Espainiako Auzitegian Nazionean konfidantzazko abokatuarekin.

Haren senideek GOIERRI-TARRARI adierazitakoaren arabera, erabat ezustean harrapatu zuen Auzmendi operazio honek: "Lehenengo bisitan oso triste ikusi genuen, ez baitzuen gertatzen ari zena ulertzen. Ez zen kontzentra-



Txema Auzmendi

Egunkaria-ko administrazio kontseiluko idazkaria

Txema Auzmendi 1948an jaio zen, Ordizian. Egunkaria Sortzen herri ekimeneko bultzatzaileetako bat izan zen eta, behin proiektua gauzatu zenetik, Egunkariako Administrazio Kontseiluko idazkaria da. Josulagundian 1968an sartu zen (1978an apaiztu zen). Deustuan hasi zituen goi mailako ikasketak: Filosofia eta Letrak aurrea, Teologia gero. Jarraian, Alemaniara joan zen Etika doktoradutza egitera. Herrien eskubideei buruz egin zuen tesia. Urtebetez, filosofia eskolak eman zituen Deustuan, eta gero Azpeitira joan zen, Loiolara. Hiru urte egin zituen Iraurgi ikastetxean irakasle, 1984an hasita. Ondoren Donostiara joan zen, eta berehala hasi zen saioak egiten Herri Irratian. Jende xumea, baztertuak, Gobernu Kanpoko Erakundeak... denetarik pasa da hark zabalduetako mikroaren aurretik. Beti nabarmendu izan du bere kazetaritza lana bitartekaritza lan moduan ulertzen duela. Juan Lekuonak bere kargua utzi zuenetik, Donostiako Herri Irratiko zuzendariordea da.

tzen, eta animo aldetik oso baxu zegoen". Martxoaren 8ko bisitaldian beste era batera topatu zutela diote: "Animatuagoa zegoen. Apaiz modura lanean ari da kartzela barruan, euskara eta alemaniera klaseak ematen, eta in-

guruan dituen guztiei laguntzen. Horrelakoa da gure anaia".

Tratu txarrik ez zuela jasane esan zien Auzmendik senideei. "Pasatu ditudan bost egunak pasatuta orain zeruan bezala sentitzen naiz", adie-

Herriz herri

Egunkaria itxi eta berehala, hainbat eta hainbat izan dira jasotako elkartasun mezuak. Egun, konpromisoa eskatzen diote Egunkariako langileek gizarteari, eta horretarako, herrietan Egunkariaren aldeko batzordeak eratu dira.

Ordizia: Martxoaren 21a bitartean Egunkariaren harpidedun egiteko mahaia egongo da jarrita Barrenan (arratsaldeko 6etatik 8etara). 150 harpidedun berri lortzea da helburua. Batzordeko hurrengo bilera martxoaren 25ean.

Zaldibia: Etxe guztietara banatu da harpidetza txartela. 31 harpide berri egitea da helburua. Egunkariako materiala salgai jartzeko asmoa dago. Martxoaren 29an jokaturako den Mus txapelketan parte hartzeko deia egiten du batzordeak.

Lazkao: Lazkaoko Egunkariaren Adiskideak taldea sortu da. Taldea sendotzea eta harpidetza kanpaina sendoa egitea da helburua.

Ormaiztegi: Epe laburrean harpidetzak egiteko ekimenak antolatuko dituzte.

razi omen zien, eta kalera irtetzen denean hitz egingo duela. Senideek, hala ere, "zerbait egingo ziotela" uste dute, "gure anaia ezagututa, ez baita normala zegoen egoeran ikustea; begirada hori ez zen normala".

Iñautsi
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

ZUZENKI
Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa
txekin
www.txekin.net
Legorreta Beasain Orendain
Etxebizitzen salmenta:
Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Ellosegi, 16 LAZKAO

Hainbat lagun motorzaleren ekimenez sorturiko elkartea Goierri Motorkluba, auto zaharren berreskurapena eta sustapena helburu

Nork ez du ikusi noiz edo noiz auto zaharrez osaturiko ilara luzea inguruetako errepideetatik igarotzen? Askok txundituta gelditzen dira erlikia horiek oraindik motorrak martxan dituztela ikustean. Ikusmira hori bizirik mantendu eta ezagutzera emate aldera, orain gutxi sortu da gurean Goierri Motorkluba, betiere, motorraren mundua beste hainbat jarduerekin uztartu asmoz.

Goierri Motorkluba elkarteko bokal Julen Agirrerekin hitz egin du GOIERRITARRAK. Haren esanetan, elkartearen oinarritzko helburua motordun ibilgailuak sustatzea eta babestea izango da eta horiekin gozatzeko hainbat jarduera antolatuko dituzte. "Motorraren inguruko zaletasuna duen guztiari irekita dagoen elkartea da gurea. Errepideetan ikusiko gaituzue gure ilusio guztiak eramanez", azpimarratu du Agirrek.

Gaur egun 15 lagunek osatzen dute Goierri Motorkluba elkartea. Agirreren arabera, oraindik oso klub txikia dira

bazkide kopuruari dagokionez, baina ilusioz beterik daudela dio. "Hala ere, gure klubeko ateak zabalik daude, eta esku zabal hartuko ditugu inguruan dauden motorzale guztiak, edota modu batera edo bestera parte hartu nahi duten guztiak", adierazi du.

60. hamarkadatik aurrerako 30 auto inguru

Zaleak eta zaleak ez direnak alde batera utzi gabe, Goierriko Udalekin harremanetan jartzeko asmoa ere badute, "herrietan auto zaharren erakusketak egin nahi izanez gero, datu teknikoak eta prezioak zehaztuz". Momentuz 60. hamarkadatik aurrerako 30 auto inguru dituzte -taldekide bakoitzak bi-, eta elkar-teari nortasun zehatz bat eman asmoz, materiala sortzen ari dira. "Pegatinak, kamisetak eta beste hainbat material prestatzen ari gara", zehaztu du Julen Agirrek. Horrez gain, motoen sekzioa sortzea gustatuko litzaiekeela aitortzen du.

Marka guztietako autoak dituzte: Triumph, Porsche, Chevrolet, Mercedes eta BMW zaharrak, eskarabajokak, Seat eta Renault zaharrak. Bazkide baten lokalean biltzen dira, eta aurrera begirako hainbat egitasmo dituzte.



Martxoaren 22an lehen irteera ofiziala

Beasaingo geltokiaren aurrean bilduko dira martxoaren 22an Goierri Motorklubeko kideak auto eta guzti. Arratsaldeko 15:30ean jarri dute hitzordua, eta Goierriko barrera bira bat eman ondoren, Zerainera abiatuko dira. Han minak eta kartzela ikusi ondoren afari merienda bat egingo dute. Ondoren, lehia-keta moduko bat egingo dute

autorik gustukoena, itsusiena eta zaharrena zein den erabakitzeke. "Autoez gozatu nahi dugu, baina baita bestelako ekintzak egin ere", dio Agirrek. Lehen irteera ofiziala izango da hau, eta bitartean 2003ko jardueren programa prestatzen ari dira. Bi telefono jarri dituzte harremanetarako: Victor (661515000), Julen (653743943).



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak




☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

3



Lore eta landareen udaberriko **azoka**

SEGURA
2003ko Martxoaren 23a



SEGURA VDALA
eta **HERRIKO ELKARTEAK**
ANTOLATZAILE

EGITARAUA

10etan, AZOKAREN IREKIERA OFIZIALA

- _ Lore eta landare erakusketa eta salmenta
- _ Landare sendagarriak
- _ Lore lehorrak
- _ BONSAlak

IKUSKIZUNAK

- _ MENTUAK edo TXERTOAK nola egiten dira?
- _ Euskadiko ORNODUN MEHATXATUEN erakusketa
- _ NESTOR BASTERRETXEaren **eskultura** berria

ARRATSALDEZ

- _ Erromeria, erraldoi eta buruhaundiak
- _ Segurako talogileen eskutik tailerra, TALOA nola egin



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

Segurako Udalak eta herriko hainbat elkartek antolatuta Lore eta landareen udaberriko azoka izango da martxoaren 23an, Seguran



Orain dela urte batzuk Segurako herriak egindako lanari esker sortutako azoka honek hirugarren urtea beteko du martxoaren 22an, larunbata. Lore eta landare postuetatik haratago, —aurten iaz baino sei postu gehiago egongo dira— bestelako ekimenak ere prestatu dituzte eguna borobiltzeko: batzuk aisialdikoak eta didaktikoak bestek.

Guztira 16 postuk jantziko dute aurten Segurako Lore eta landare azokako plaza, iaz baino sei gehiago. Horiez gain, zazpi artisau postu eta elikagaietako beste bederatzi egongo dira hurbildakoen patrikak hustu ala ez hustu zailtzen jartzeko. Herriko talogileak ere, eman eta eman arituko dira talolari, baita ikusleei taloa egiten erakutsi ere. Txertoak nola egiten diren ere erakutsiko dute egun horretan Seguran. Bestalde, EAEko Ornodun mehatxatuen inguruko erakusketa bat zabalduko dute hilaren 21etik Aste Santuak bitarte.

III. Lore eta Landareen azokako egitaraua

- **Goizeko 10:00etan:** Azokaren irekiera ofiziala.
 - Lore eta landare erakusketa eta salmenta.
 - Landare sendagarriak
 - Lore lehorrak
 - Bonsaiak
- **Arratsalde:**
 - Erromeria, erraldoi eta buruhaundiak
 - Segurako talogileen tailerra. Taloa nola egin.
- **Ikustekoak:**
 - Mentuak edo txertoak nola egiten dira?
 - EAEko Ornodun mehatxatuen erakusketa.
 - Nestor Basterretxearen eskultura berria.



Erakusketa Ardixarran eta txerto ikastaroa

Azoka postuen kopurua gora doan neurrian, bestelako lanetan ere aritu dira Seguran. Batetik, 'EAEko Ornodun Mehatxatuak' izeneko erakusketa didaktikoa zintzilikatuko dute Ardixarra etxean martxoaren 21tik Aste Santuak bitarte. Nekazaritza eta Arrantza Sailak galtzeko arriskuan dauden basa, itsas faunako eta landareriko bizidunak zerrendatzeko egindako lan baten ondorio da erakusketa hau. Guztira 146 espezie ziren eta Seguran horietako 50 panel jarriko dituzte. Horrez gain, Oñatiko Natur Eskolak Euskal Herriko landareria buruz egindako beste 40 panel ere ikusgai egongo dira.

Mentuak edo Txertoak

Mentuak edo txertoak nola egiten diren ere erakutsiko dute egun horretan Seguran. Hona hemen txertoari buruzko azalpen txiki bat.

Fruitu arbolak, orokorrean, bi atal izaten ditu: bata, patroia edo mentu-apoa deitzen den sustraia eta bestea,

fruitua ematen duena. Mentutzea, landarearen atal bat beste bati lotzea da, biak bat eginda gera daitezzen eta landare bakarra osatuz haz daitezzen.

Menturen erabilera antzina-aintzinatik ezaguna izan da. Horrela heldu dira belau-naldiz-belaunaldi interes handieneko fruitu arbola barietate ezberdinak. Hazi bidez eginiko ugalketak ez du nahi den moduko barietatea ematen, ez dituelako bere ezaugarri genetikoetan izaten den banaketagatik oso osorik berriro sortzen.

Mentu mota asko daude; batzuk interes gabekoak eta beste batzuk euren artean oso alde txikia dutenak. Gure fruitugintza lanetan emaitza onak ekartzen dituztelako mentu praktikoek honakoak dira: Zotzezko mentuak eta Pipilezko mentuak.

Egiteko garaiak, berriz, honakoak izaten dira: Udaberrian, zotzezko mentu guztiak eta baita plakazkoak ere; Uda amaieran: batez ere, 'chip' edo plakazkoak.

KZgunea martxan jarriko da apirilean

Internet gaitetan dohako prestakuntza emateko zentroa da Kzgunea. Eusko Jaurlaritzak Ataungo Udalaren laguntzarekin bultzatu duen ekimen honen bitartez, interesatua dagoen edozein herritarrek erraztasunez eta oinarritzko moduan Interneten nabigatzen ikasteko aukera izango du eta, bide batez, egun gero eta maizago entzuten dugun nabigatu, 'txateatu'...eta antzeko hiztegia bereganatzeko aukera ere izango du.

Kzguneak bi gune izaten ditu: bata prestakuntzarako eta bestea nabigatzeko, tutore baten laguntzarekin. Eskolak euskaraz izango dira eta esan bezala edonori zuzenduta daude; internetez ezer ez dakienetik hasi eta maila sakonagoa dutenei zuzenduta dago. Ordenagailuak Kzguneak berak jarriko ditu eta Udal liburutegian emango dira klaseak.

Ekimen honen helburua ahalik eta herritar gehienek parte hartzea litzateke, batez ere, 16 urtetik gorakoei eta bereziki langile, etxekoandre, erretiratu, langabetuei... zuzenduta dago.

Ikastaroak apirilean hasi-ko dira goiz eta arratsaldeko ordutegian. Ordutegien inguru-

ruko xehetasunen berri izena emateko epea irekitzean eskainiko da. Gonbidapena luzatua duzue, beraz.

Iraupen luzeko II. Mendi Ibilaldia

11 orduko Iraupen Luzeko II. Mendi Ibilaldia antolatu da datorren maiatzaren 24rako, larunbata. San Martingo Auzoeta kiroldegian hasi eta bukatuko den ibilaldi honek herrarian mugak zeharkatuz, Lazkao, Idiazabal, Gipuzkoako Partzuergoa, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Enirio-Aralar eta Zaldibiako mugetan zehar, Aralarko Parke Naturalean barna eramango ditu ibiltariak.

Ibilaldiari San Martinen irteera emango zaio eta ondoren Arantzazumendi-Atxurbide- Aietsu- Aretza- Intsurburu- Berrenoa- Irumugata zeharkatuz Lizarrustira iritsiko da, hortik Alleko -Lareoko urtegia- Sarastarritik zehar Intsustiko iturrira joan eta Amundarain aldetik San Martina.

Xehetasun gehiagoren berri datozen asteotan izango duzue eta bitartean ekin pres-taketari!

Atsedeen Tokiko joko txapelketak

Atsedeen-Toki jubilatuen elkarteak joko txapelketak antolatu ditu martxoaren 18tik 29ra, Udalaren laguntzaz. Hona hemen bi aste horietarako antolatu duten egitarauaren inguruko xehetasunen berri:

● **Martxoak 18:** goizeko 11etan, Bote txapelketa. Arratsaldeko 4etan, Mus txapelketa (4 erregetara).

● **Martxoak 20:** goizeko 11etan, Zapoa. Arratsaldeko 4etan, 6ko urrea.

● **Martxoak 22:** goizeko 11etan Toka txapelketa. Arratsaldeko 4etan, Tute txapelketa.

● **Martxoak 25:** Arratsaldeko 4etan, Eskoba txapelketa.

● **Martxoak 27:** Arratsaldeko 4etan, Punttua.

● **Martxoak 29:** Arratsaldeko 4etan, Mus txapelketa.

Joko hauetakoren batean parte hartzeko interesa duzuen bazkideok, -derrigorrezkoa baita bazkide izatea- izen emateko epea irekia duzue larunbat honetara, martxoak 15, bitartean. Izena emateko arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean joan behar duzue elkartera eta bazkide karneta eraman behar duzue. Nahi adina jokotan parte hartzeko aukera izango du parte hartzaile bakoitzak, eta izena ematerakoan adierazi beharko du bakoitzak non nahi duen.

Korrika 13ren aldeko bonoak salgai

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia, KORRIKA, apirilaren 4ean abiatzekoa da Mauletik. 2150. km egin eta ehunka euskal herri zeharkatu ostean iristekoa da Iruñera apirilaren 13an. Aurtengoan 13. edizioa du Korrikak eta laguntzaile izan nahi duen ororentzat salgai dira bonoak Troskaeta eta Urbieta tabernetan. 10 euroren trukean, metro sinboliko baten jabe izateaz gain, pin bat eta Korrika laguntzaile bono bat eskuratzen dira. Bono honen jabe den orori Korrika laguntzaile diren dendetan deskontuak egingo zaizkio gainera. Bestalde, Korrika 13 Goierriara ere inguratzekoa denez, datozen asteotan emango dizuegu zehaztasunen berri. Adi egon beraz!

Agurtzane Bikuña

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakiak: E-2644
RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Txirrindulari elkarteak martxan

Txirrindulari elkarteak herri-tarrek lizentzia atera eta uda bitarteko irteerak antolatzen kanpaina egin du. Elkartearen diru laguntzarekin 15 herritarrek lizentzia atera dute. Errepidean seguroago ibiltzea da helburua.

Azken urteetako etenaren ondoren, iaz hasi ziren berri ere txirrindulariak elkartu eta antolatzen. Herriko txirrindularientzako mailotak egin zi-

tuzten. 50 lagun elkartu ziren ekimen hartan. Orain, irteerak egin eta antolatzen guxiagoratu dira. Hala ere, antolatzaileak gustura daude.

Uda baino lehen lau irteera antolatu dituzte. Apirilean, Bardeara (Nafarroa) egingo dute egun osorako irteera. Maiatzaren 11an, Zikloturista Elkartek Billabonan antolatutako irteeran hartuko du parte. Ekainaren hasieran



'Indar Zabal' plataforma

Martxoaren 3an aurkeztu zuen bere burua 'Indar Zabal' plataforma berriak. Aurkezpenean jakitera eman zutenez "Indar Zabal plataforma herrikoia da. Euskal Herriaren aurka egiten ari den eraso oro salatuko du eta egoera latz honetatik ateratzeko irtenbideak proposatu eta landuko ditu".

Talde berriak ideia ezkertiarak defendatuko ditu eta gizarte orekatuago eta justuagoaren alde lan egiteko asmoa dutela adierazi zuten bertaratuek aurkezpen ekitaldia.

Idiazabaldik abiatu eta Otzaurte eta Lizarraustitik barrena bira egiteko asmoa dute. Hil horren bukaeran Zeraingo mendietara izango da irteera.

Irteera hauetan herritar guztiek har dezakete parte. Egunak iritsi ahala zehaztuko dira ekimen hauek gehiago.

Xabier Urteaga

Etxegarate bukatuta

Zortzi aldiz Etxegarateko lanak bukatzeko data jarri ondoren, inolako abisurik gabe zabaldu zuten martxoaren 6an bikoizteko falta zen zatia. Foru Aldundiak ez du oraingoz inaugurazio datarik jarri. Lanek ia lau urte iraun dute, hasieran iragarritakoa baino 20 hilabete gehiago. GOIERRITARRAREN hurrengo alean izango duzue berri gehiago.

Bielorrusiako haurrak

Ekainaren 21ean iritsiko dira Bielorrusiako 12 neska mutikoak uda Goierrin pasatzera. 8 Idiazabalen geratuko dira, bi Beasainen eta bana Zegaman eta Seguran.

Ibilgailuen zerga

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea apirilaren 3an bukatuko da. Ordainketa aurrezki kutxetan helbideratuta dutenei zuzenean kenduko zaie dirua. Gainerakoek Udalean ordaindu behar dute zerga.

Txakur jabeek oharra

Herri kaskoan gero eta txakur gehiago daudela ikusita Udalak araudi berria onartu du. Txakur bakoitzak mikrotxipa eta mediku txartela edukitzea derrigorrezkoa da. Txakur kaka jabeek jaso behar dituztela ekarri du gogora Udalak. Arauak bete ezean neurri gogoragoak hartuko dituzte.

GUKlan

Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Hurbiltzen programaren aurkezpena Zegaman



Joan den apirilaren 6an aurkeztu zen Zegaman, Gipuzkoako Foru Aldundiak bulztatu eta idatzitako Hurbiltzen Programa. Plan hau 2.000 biztanlez azpiko Gipuzkoako 48 herriei dago zuzendua eta bertan herri haue-

tan gizarte zerbitzuak nola antolatu etorkizunean aztertzen da.

Planaren aurkezpen ofiziala Maximo Goikoetxea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza departamendu-

ko diputatuak egin zuen eta ondoren, Asturias eta Catalunya gobernuetako politikari eta teknikariek beren lurraldeetako errealitateen berri eman zuten.

Ondoren, Juan Inazio Galdos Zegamako alkatea eta Iñaki Labaka Errezilgo alkatearen txanda izan zen. Hauek beraien herrietan aurki martxan jarriko diren zerbitzuen nondik norakoak azaldu zituzten. Bestalde, Mendikoiko Josu Garaialdek zerbitzuak antolatzeko garaian mankomunitatearen garrantziaz hitz egin zuen eta, LKSko teknikoak berri, planaren xehetasunak eman zituen.

Aipagarria izan zen, Asturiasko Printzipaduko Cabra-

les eskualdean dagoeneko martxan dauden zerbitzuen ezagutza. Bertan, biztanleriaren %46ak, 65 urte baino gehiago ditu eta dagoeneko, bazkaria, podologo eta liburutegi mugikorraren zerbitzua etxetik etxe ematen zaie behar hau dutenei.

Foru Andundiko Jon Iribar teknikariak aipatu zuen Hurbiltzen programak "dinamizazio positibozko" izaera duten programak exekutatzeko asmoa zuela datozen urteotan Diputazioko Gizartekintza departamenduak, eta herri txikiak ordezkariei iniziatibak eskatu zizkien denentzatean Hurbiltzen programa gauzatzeko.

Edurne Albizu

Hurrengo egunetako hainbat ekintza

Martxoak 14: Elkarriren bilera

Elkarriren berri izan edota bere tailerretan parte hartu nahi baduzu, datorren martxoaren 14an, iluntzeko 19:30etan bilera izango da Kultur Etxean. Bilera irekia da eta ez du tailerretan parte hartzeko behartzen. Beraz, bere jardueren berri izateko aukera paregabea duzu herrian.

Martxoaren 17tik 21era: Garizumako hitzaldiak

Iluntzeko 8etan izango dira parrokiaren bertan. Hizlaria Iñaki Beristain izango da.

Martxoaren 20 eta 21ean: Euskara Eguna

Gimnasioan izango da arratsaldeko 14:30etatik aurrera Aitxuri Herri Eskolako haurren eskutik.

Martxoak 22: Sagardotegira irteera

Astigarragako sagardotegira irteera, Tartalo elkarteak antolatuta. Ordua, arratsaldeko 19:00etan.

Martxoak 23: Arrantza lehiaketa

Tartalo Elkateko arrantza lehiaketa izango da.



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa

OLABERRIA



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

943 80 10 66


Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Lagorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia.

Nestor Basterretxearen eskulturaren inaugurazioa

Herriko harresiak eta bere defentsa sinbolizatzen ditu



Eskulturak argi propioa eramateaz gain, lau metrora dagoen foko batek argia emango dio gaur ez arboladi aldetik.

Seguraren 750. urteurrenerako 3 urte besterik falta ez direnean, "Segura erasotzaileengandik libre bizitzearen alde borrokatu zutenen omenez", Nestor Basterretxeak, Udalak eskatuta gauzatu duen eskultura, martxoaren 16an, eguerdiko leian inauguratu zen. Arte-lana, San Joan sua egiten den inguruan dago, Euskal Herriko Dantza Txapelketa egiten hasi zen gunearen ondoan. "Corten" altzairuan eginga,

5 metroko altuera, 3,30ko zabalera, 3,20ko sakonera, 3,5cm-ko altzairu lodiera eta 6 tonako pisua du. 36.000 euro kostatu da. Laguntzaile lanean Joxemari Telleria ibili da eta Zegamako Kortaberri galdarategian egin dute. Ekitaldi berean, arboladi inguruan egin diren berritze eta egokitze lanak ere inauguratu ziren. Dantzariak, txistulariak, herriko korua eta Nestor Basterretxea bera ere bertan izan ziren.

Atsedeneko irabazleak

Otsailaren 28an jokatu ziren jubilatuen elkarterko karta txapelketen finalak. Brixan, puntuan eta tutean, Xabin Aldanondok eta Eulogio Al-bisuk irabazi zuten. Musean, Joxe Luis Etxeberria eta Antonio Aldanondo izan ziren irabazleak.

Bola

● **Imanol Agirrek** lehenengo egin zuen martxoaren 8an Olaberrian "Joxe Kerejeta" ren oroimenezko saioan, (36 birla).

● **Antonio Agirrek** bigarren egin zuen martxoaren 2an Ze-

rainen "Endika Alustiza" ren oroimenezko saioan, (36 birla).



VIII. Iparra-Hegoa

Martxoaren 24tik 30era, Nafarroari eskainia

Elkar gehiago ezagutu, ulertu, gerturatu eta batzeko, Elorri Kultur Elkartek eta Urruñako Bertoli elkarteak ondorengo egitaraua antolatu dute:

Asteazkenetik hitzaldiak Kultur Etxean, 19:30ean:

Astelehena, 24: "Nafarroa, Navarra, Navarra. Gerturapen historikoa bere izen eta jaietara". Josu Txueka, EHU-ko irakaslea.

Astearte, 25: "Itoitz, gaurko egoera". Itoitz koordinakundeko kideak.

Asteazkena, 26: "Nafarroako jatorrizko nekazal ekonomia". Lodosa, Tuter eta Irunberriko ekoizleak. Ondoren, bertako produktuen probaketa.

Osteguna, 27: Bertso saioa Elorripen (19:30). Xabier Silveira eta Xabier Legarreta. Ondoren bertso afaria Elorri elkartearen.

Ostirala, 28: Haurren eguna. Hitzaldia: "Euskara Nafarroan". Gauean kantaldia karpant.

Zapata, 29: Haur tailerra. V.margo sariketa. Futbitoia, pelota eta herri kirolak. Ardoa eta taloak. Kuxkuxtu txaranga. Gauaren berbena karpant.

Jaia, 30: Kalejira, joaldunak, gaiteroak, trikitilariak. Nafarroako eta herriko produktuen azoka. Sukaldaritza lehiaketa. Txakoli probaketa. Gerizondoko ekitaldia. Herri bazkaria. Kantuak eta dantzak.

Hurrengo alean, martxoaren 28, 29 eta 30eko egitaraua zehatza.

Labur-labur

● **San Joanak.** Festa egunak ekainaren 20tik 25era izango dira. Dantza Txapelketa 21 eta 22an jokatu da.

● **Internet ikastarorako** 49 herritarrek eman zuten izena. 6-7 laguneko taldeetan banatuta, pasa den asteazkenetik hasi zuten lehenengo ikastaroak Osasun etxeko lehen solairuan.

● **Aste Santuko entsaioak.** Koruarenak ostegunetan, 20:00etan Kultur Etxean.

Soldadu kornetajoleenak aste honetan hasita, hastean bitan entsaiatuko dute elizan.

● **Karpa plazan,** lore azoka eta Iparra-Hegorako 15x25 m-ko estalpea jarriko da.

● **Eneko Agirrezabalek** 12. postua lortu zuen Espainiako kros txapelketan jubilen mailan, pasa den martxoaren 8an Ibizan.

● **III. Lore ta landare azokaren** informazioa 13. orrialdean.

Joseba Telleria

Ardi harrigarria Katarretan

Katarreta baserrian, Jexux Imazek dauzkan 40 ardieta-ko batek errapeko lau titietatik ematen du esnea. Jexux beraren eta inguruko artzaien arabera, kasu erabat harrigarria da. Gainerakoek ere lau titi izan arren, horietako bi, garatu gabeak, txikitxiak izaten dituzte eta beste bietatik bakarrik ematen dute esnea.



Pagoeder plataforma

Politikan hainbeste nahasmen eta zurrumbilo sortu duten azken erabaki judizialen oihartzunak iritsi dira gure herrira ere. Ezker abertzaletasunaren ideologia legez kanpo utzi izanak ezinegon sortu du Gabirian; horrek bultzata sortu da Pagoeder herri plataforma. Joan den igande eguerdian enparantzan aurkeztu zuen bere burua mugimendu herrikoi honek ekitaldi xume baten bidez.

Idea politiko jakin batzuen defentsa egingo duen alderdiaren ukazioak dakarren injustizia salatu, eta pentsakera horren aldeko lana egin duten ekimenak indarrean jarri dira Euskal Herri osoan. Hirurehun herritan baino gehiagotan sortu dira mota honetako sustengu-adierazpenak.

Eskubide guztiak bermatzearen alde egiten du plataformak sorrera-deian adieraz-

ten duenez. *"Aspaldian Euskal Herrian eskubide murrizketa nabaria pairatzen ari gara. Horren aurrean, halaber, salaketa zuzena egin nahi dugu. Guztiok eduki behar dugu ahotsa, guztion artean herri honen norabidea ezarri ahal izateko".* Euskaldunon Egunkariaren itxiera aipatzen da salaketan artean.

Autodeterminazio eskubidea ikurrin gisara hartuta, Euskal Herri libre eta soberano baterantz ahalegina egin nahi du Pagoeder plataformak Gabirian: *"Gu Gabiriako herritar talde bat gara, aipatutako kezkak ditugulako elkartu garenak. Gure lan eremua Gabiriako bizitza sozial, politiko eta kulturalen izatea nahi dugu".*

Zozkera edo auzo gehienetako herritarrek daude plataformaren bultzagileen artean, adin eta gizarteko arlo askotakoak. Aurrera begira ja-



Aurkezpen ekitaldiko esaldiak

- "Euskal Herria ez da herri libre eta soberanoa nahiz eta Europako zaharrenetakoa izan".
- "Funtsezkoa deritzogu Euskaldunok gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea edukitzea".
- "Autodeterminazioaren alde jardutea dugu helburu Gabirian".
- "Euskal kulturaren alde lana egingo dugu, euskal kirola eta Euskal Selekzioaren alde".
- "Legez kanpo geratzear dagoen eta ito nahi duten proiektu politiko baten ahots izan nahi dugu".

rraitu beharreko ildoari dago-kionez planteamentua garbi daukate: *"Udalbiltza erakundeak Eraikuntza Nazionalaren alde sortutako ekimenek bultzako diegu. Gabiriako arazo ekonomikoetan gure*

ikuspuntua defendituko dugu, eguneroko bizitzan herri eta auzo, baserri eta kale, elkarren harreman zuzena izateko lana eginez".

Aimar Maiz



Gu geu herri ekimena aurkeztu dute

Martxoaren 9an aurkeztu zuten zenbait herritarrek Gu Geu izeneko herri ekimena. *"Herriak duelako erabakia, herriaren esku dagoelako etorkizuna, eta herria herritarrok osatzen dugunez",* jarri diote izen hori plataforma-

ri. Ekimen hori adin ezberdinetako herritarrok osatzen dute. Plataformaren helburu nagusia herriaren alde modu bateratuan lan egitea da, hau da, *"herriko hainbat esparrutan, hala nola, bizitza sozial, politiko nahiz kulturalen,*



lan egitea". Era berean, Euskal Herriari herri gisa dagozkion eskubideak aldarrikatzen dituztela azaldu zuten aurkezpen ekitaldian, eta horiek bermatzeko lan egitea da haien xedea; besteak beste, Euskal Herriaren autodeter-

minazio eskubidea aldarrikatzea eta euskal naziotasuna bultzatzea.

Gu Geu herri ekimena izanik, herritar orori dei egiten dizue herri ekimenak indarrak batu, eta elkarlanean ari zeko.

Denok gara Egunkaria

Euskal Herri osoko euskarazko egunkari bakarra itxi egin zuten Juan Del Olmo epailearen aginduz joaneko otsailaren 20an. Harrezkero hainbat eta hainbat ekintza egin dira Euskal Herriko hiri, herri eta auzoetan Euskaldunon Egunkaria berriro ere ireki dezaten eskatzeko. Euskaldunon Egunkariako langileak, bitartean, langabezian daude, baina inolaz ere ez geldirik. Egunkaria itxi badute ere, Egunerok betetzen du orain harren lekua.

Informazioa bai, baina musutruk ari dira lanean langileok. Egunkaria berriro ere ireki dadin ekimen gehiago egin beharko dira. Hori dela eta, herriz herri batzordeak osatu dira eta hori bera egin da Ordizian ere. Egunkariaren aldeko batzorde honetan parte hartu nahi baduzu, beraz, martxoaren 25ean Barrenan egingo den bilerara azal zaitezke. Bestalde, egunkariaren harpidedun izan nahi baduzu martxoaren 21a bitartean Barrenan jarriko den mahaira joatea besterik ez duzu (arratsaldeko 6etatik 8etara). Ordizian 150 harpide berri lortzea da helburua.

Korrika 13

Euskararen aldeko KORRIKA apirilaren 6an pasako da guretik, gaueko 11:30ak aldera, eta egun berezi hori arrakastatsua izan dadin Korrika Batzordea lanean da jada. Girotzeko hainbat kultur ekintza antolatzeaz gain diru biltetan ari dira orain batzordekoak. Beti bezala lantegi, taberna eta dendetara hurbildu eta Korrika Laguntzaile izateko diru aportazioa eskatuko da.

Bestalde, kilometroak ere salgai jarri dira. Kilometro bakoitza 300 euroren truk eskuratu daiteke eta honekin Korrika Ordiziatik pasako denean lekukoa eramateko aukera izango duzu. Honez gain, herriko hainbat lekutan Korrika Laguntzaile bonoak ere 10 euroren truk daude eskuragarri. Hau hartzean pin bat jasoko duzu eta era berean Euskal Herriko hainbat lekutan deskontuak egiteko balioko dizun txartela ere bai. Korrika gauez pasako denez, aurretik Korrika txikia ere egingo da. Honetan herriko gaztetxoek hartuko dute parte, eta herriari bira eman-go diote.

Erven Morice eta Florence Izard irabazleak



Giro politoan burutu zen Hegats Igeriketako III. Nazioarteko Opea. Azkenean punta-puntako igerilari batzuk huts egin bazuten ere maila oneko partaidetza izan zen. Taula alemaniarraren arabera gizonetako Erven Morice frantziarra izan zen garailea 809 punturekin. Emakumeetako Florence Izard erkideak irabazi zuen 735 punturekin. Bertakoen artean Ane Lopez de Bergara izan zen gehien nabarmendu zen igerilaria, bosgarren gelditu baitzen.

Herriko euskara

Larraitz Garmendia eta Karmele Etxabe zaldibiarrek jaso dute Ordiziako euskara aztertze beka. Euskararen aholku batzordeak Hitzaro euskara elkartearekin batera antolatutako beka hau eskuratzeko hautagaiak hiru ziren. Epaimahaikoak hauek aurkeztutako memoria eta kurrikuluak aintzat hartuaz azkenean bi zaldibiarrok aurkeztutako lan proposamenak jaso ditu puntu gehien eta hemendik aurrera gure euskara jasotzeko azterketekin arituko dira. Horretarako 6.000 euroko laguntza izango dute.

Elkarte arteko musa

Martxoaren 10etik 21a bitartean elkartearteko mus txapelketa izango da jokoan. Aurtengoan antolaketa lanak Azari Elkartek egingo ditu eta nobedade gisa aipatu oraingoan zortzi elkarte ez, bederatzik baizik hartuko dutela parte. Mendizaleak, Boxing, Larrun Arri, Argi Berri, Jai Alai, Itxaropena, Azari eta Txapel Gorriko muslariek gain Goiz Aterpe elkarte berrikoak ere arituko dira. Elkarte bakoitzeko bina bikote, bi multzotan, denak denen aurka eta azkenik multzo bakoitzeko puntu gehien eskuratu dituzten bikoteek elkarren aurka aritu beharko dute 21ean jokatu den finalean.

Sugaar tabernako sesio kontzertuak

Hileroko sesioekin jarraituz martxoaren 21ean "Reverendo Parker" rock & roll taldea izango da gaueko 10:30etik aurrera. Martxoaren 28an, berriz, "Ama + Sport Billy".

Oianguren institutuak 25 urte

Mende laurdenean igaro da Oianguren batxiller institutua sortu zenetik eta hau ospatzeko bazkaria antolatu dute bertan ibilitako ikasle, irakasle, guraso eta langile guztientzat. Berau herriko pilotalekuan egingo da apirilaren 12an. Bazkarira joan nahi izanez gero nahikoa duzu 16 euro Kutzako kontu honetan sartzea: 2101-0019-56-0124062092. Ikasle, irakasle... zer zaren adierazi eta ordainagiria aurkeztu bazkarian bertan. Izena emateko epea martxoaren 31n amaituko da. Hurrengo alean izango duzue 25 urte hauen guztien historiaren berri zabalagoa.

San Jose Eguna

Egun hori aitzakia hainbat ekintza antolatu dituzte San Jose zahar etxekoek. Era berean, jubilatutako elkarteak ere jo eta su dabilta mahai joku desberdinetako partidetan lehian.

Web orria martxan

www.ordizia.org izango da hemendik aurrera Ordiziako Udaleko informazio zuzena jasotzeko beste moduetako bat. Bertan Udalaren funtzionamendua, kultur ekintzak, Azoka, kale izendegia, plenoko aktak eta beste hainbat informazio izango duzu eskura. Beraz, badakizu, ordenadorea piztu, interneten sartu eta helbide hau idatzi besterik ez duzu.

Aitor Calvillo

VI. Literatur sorkuntzako bekaren oinarriak kalean

Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin eta Elkarlanean argitaletxearen laguntzarekin, dagoeneko kale-ratu ditu VI. Igartza Literatur Sorkuntzako bekaren oinarriak. Euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza ematea du helburu beka honek. Sei mila euroko diru laguntza izango du bekak.

Idazle berrientzako beka da, 35 urtetik beherakoentzat. Bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea

da bigarren baldintza. Deialdira, narratibako lanak egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasunean inon argitaratu gabeak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

Proiektuak, uztailaren 1era arte bidal daitezke Beasaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Epaimahaia, Julen Gabiria, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik

Bertso paper lehiaketaren sari banaketa

Martxoaren 14an egingo da Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak Beasaingo lagunak taldearekin batera antolatutako Neguko I. Bertso paper Lehiaketaren sari banaketa. Eñaut Agirre izan da lehiaketa honetan irabazle. Usurbe Antzokian egingo da ekitaldia 22:30etan. Bertso saioa izango da era berean. Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Xabier Silveira, Sustrai Kolina eta Eñaut Agirre izango dira kantuan Irati Goikoetxea gaijartzaile dela.

Mus txapelketa Arranon

Bihar, martxoak 15, XIII. Arrano mus txapelketa jokatu da arratsaldeko 4,30ean hasita. 4 erregeetara jokatu da, 30 tantuko 3 usteletara. Izen ematea Arrano tabernan egin behar da arratsaldeko 3,30ean. Bikoteko 25 euro ordaindu beharko da. Sariak: irabazlearentzat 1.000 euro eta txapela. 2. sailkatzen denak 500 euro, 3.nak 250 euro, 4.nak 125 euro, 5.nak arku-me bat, 6.nak ardo kaja bat, 7.nak bi tarta eta 8. sailkatzen denak 2 kava botila eramango ditu. Herriko lehen bikoteak berri bi txuleta eramango ditu

osatuko dute. Bekako diru kopuruaren erdia, izendatu bezain laster jasoko du irabazleak eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta

epaimahaikoek onespenera emandakoan; lehen erdia jasotzen duenetik urtebetetera. Epaia, 2003ko irailaren 6aren aurretik jakinaraziko da.

Hitzaldia Nagusilane antolatuta

Beasaingo erretiratu talde batek osatutako boluntario talde honek antolatuta hitzaldia izango da martxoaren 18an Beasaingo Udaleko Batzar Aretoan 19:00etan. Hizlaria Gonzalo Berzosa gerontologoa izango da eta gaia, jubilazioaren ingurukoa.

Erretiratuen martxoko programa

Erretiratu Etxeak ekitaldi hauek ditu aurreikusita martxorako.

- Martxoak 15, 18,30ean, dantzaldia Erretiratuen Etxean.
- Martxoak 18, Ohiko Batzar Orokorra egingo da. Lehenengo deialdia 16,30ean eta bigarren deialdia 17,00etan.
- Martxoak 25, 18,00etan, bingoa izango dute.
- Martxoak 26, 8,00etan, egun osoko irteera egingo dute Iratxera.
- Martxoak 29, 18,30ean, dantzaldia Erretiratuen Etxean

Txirrindularitza proba

Martxoaren 22an, XXI. Usurbeko txirrindularitza proba korrituko da kadeteentzat. Loinatz Txirrindulari elkarteak antolatu du proba.

Hodeiertzen kontzertua

Musika Eskolaren 25. urteurrenaren ospakizunen barne koka dezakegu, martxoaren 23an, Hodeiertzek emango duen kontzertua. Andra Mari Zeruratuaren Parrokian 19:00etan izango da emanaldia.

Mikel Telleriaren kontzertua

Martxoaren 27an Mikel Telleriak kontzertua emango du Usurbe Antzokian 21:00etan.

Eskolarteko antzerkia

Hainbat antzerki emanaldi emango dituzte eskolako umeei zuzenduta.

- Martxoaren 26an; Leire Hasiberria
- Martxoaren 27an; Natacha
- Martxoaren 28an; Muzziki

Mendiko argazkien erakusketa eta sari banaketa

Argizpi Argazkizale Elkarteak eta Aizkorri mendizale Elkar-teak, Udalaren babesarekin antolatutako Mendiko Argazki lehiaketan aukeratuak izan diren argazkiak ikusgai egongo dira Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan martxoaren 14tik 23ra. Sari banaketa martxoaren 14an egingo da 19,00etan.

Ibilgailu klasikoaren kontzentrazioa

Martxoaren 22an arratsaldeko 15:30ean ibilgailu klasikoaren kontzentrazioa egingo da. Goierri Motorkluba 661515000.

Loinatz jaiak zehazten doaz

Beasaingo Loinatz jaiak gerturatzen ari direla eta, dagoeneko batzordea osatu eta lehen bilerak ere eginak ditzuzte herriko elkarte, lagun talde eta partikularrek. Hemendik aurrera ere izango dute lanik gauzak gehiago zehazten.

Odol ateraldia

Odol Emaileen Ordezkaritzak jakinarazten du, martxoaren 25an egingo dela odol ateratzea Urbi etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaileez gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.

Nekane Altuna




GARMENDIA

Egur tratamenduak



*Udaberriarekin batera
pipia lanean hasten da
eta zuk ez utzi zure
altzarietara iristen*

**ORAIN DA
GARAIA!**



Aurrikusi



**Hezetasuna
Eguzkiaren eragina
Pipia**

Barruko egurretan:

**Habeak
Parketa...**

Kanpoko egurretan:

**Leihoak
Ateak
Jardineko altzariak...**

Sendatu

**Pipiak jota dauden
altzariak**



Mallutz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842

E-mail: garmendia@garmendiatejas.com

● www.garmendiatejas.com



Lierniko ermitako berrikuntza lanak

Martxoaren 10ean hasi ziren Lierniko Andre Mariaren ermitan, erretoa eta Amabirjinaren irudia eraberritzeko lanak. Bi hilabetez iraungo dute lan hauek eta tarte horretan lehengo izatera ekarriko dituzte aipatutako bi pieza ho-

riek. Igandeetan izendatutako egunetan meza ematen berdin berdin jarraituko da.

Mus txapelketak

Otsailaren 22an Aitz-Buru elkartean jokatu zen Mus txapelketan Jose Insausti eta Pa-

txi Imaz bikoteak irabazi zuten. Txapelketekin jarraituz, martxoaren 29an, larunbatean Ostaturun jokatu da aurtengo saioa, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Aitz-Burutik Bizkaia aldera

Aitz-Buru elkarteak urtero antolatu ohi duen irteera, martxoaren 15ean egingo da. Aurten Bizkaia aldera egingo da ateraldia. Larrabetzun gosaldu, eta ondoren Bakio alderantz joango dira, txakolina dastatzeko asmoarekin. Egu-

raldia lagun, egun bikaina pasatzeko aukera aproposa.

Bola lehiaketa

Martxoaren 23an jokatu da Gipuzkoako erregularitate lehiaketari dagokion tiraldia herriko bolatokian. Goiz eta arratsaldez izango dira saioak.

Heriotza

Martxoaren 9an hil zen Mendizabal baserriko Joxepa Saralegi.

Iñaki Ugalde



Argitzen herri plataforma



Iragan martxoaren leian aurkeztu zen Ormaiztegin Argitzen izeneko herri plataforma. Aurkezpen ekitaldian 60 lagun elkartu ziren. Lehenik, herriko bi dantzarik aurrekua dantzatu zieten bertaratu

zirenei, eta ondoren ekitaldia egin zen. Ekitaldi hortan herri plataformaren sorreraren zergatiak azaldu zituzten, eta komunikatu baten bidez Argitzen herri ekimenaren lan ildo nagusiak aipatu zituzten:

"Autodeterminazioaren alde lan egiteko konpromisoa du herri ekimen honek; Euskal Herriak bizi duen eskubide demokratikoen gabetia salatuko du eta Ormaiztegiaren alde ezker ikuspegitik lanean

jarraitzeko borondatea du". Ondoren, argazki herrikoia atera zen plataformari babes eman diotenekin, eta bukatzeko hamaiketako bat egin zuten.



mazda
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zerb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

Herriari leial plataforma aurkeztu zen martxoaren 1ean



Marxoaren lehenean aurkeztu zuen bere burua Zaldibian 'Herriari leial' plataformak. 200 pertsona inguruk parte hartu zuten ekimen berriaren aurkezpen ekitaldian. Ekitaldiari hasiera emateko, egoera politikoaren hausnarketa egin zuten aurkezleek eta ondoren, bertsolari batek laburbildu zuen ekimen honen ideia nagusia bertso batean. Jarraian, 'Herriari leial' plataformaren sorreraren arrazoiak eta etorkizunean jorratuko diren lan ildoak azaldu zituzten jende aurrean aurkezleek: autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena, eskubide urraketan salaketa eta herriaren alde ezker ikuspegitik lan egitea.

Aurkezpen ekitaldian bertan, zuhatza eraiki zen herriko plazan, hori baita plataforma honen ikurra, ortzadarra-ekin batera. Zuhatzak euskal kultura tradizionalak izan duen gordetzeko gaitasuna islatzen du, eta etorkizunak ere hala izan behar duela adieraz-

ten du. Ortzadarra, bere alde-
tik, fenomeno natural oso kuro-
rioso da, euri zaparrada bat
izan ondoren, eguzki printza
bat agertu orduko sortzen den
irudi ikusgarri eta koloretsua.
Bi sinbolo hauekin, zera adie-
razi zuten parte hartzaileek:
*"Ekaitz une guztien ondoren,
beti agertzen da barealdia,
denon esfortzua -koloreak-
garrantzitsua baita etorkizu-
nerako behar dugun meta ho-
ri eraikitzeko. Azken finean,
bazterketarik gabeko ekimen
itxaropentsu, bateratzaile eta
anitz bat sortu dugu".*

Apirilaren 4, 5 eta 6an Garagardo Festa

Herri ekimen honek zenbait
batzar deitu ditu martxorako
eta herritar guztiei dei egiten
dizue bertan parte hartzera.
Bestalde, apirilaren hasiera-
rako hiru egun iraungo duen
Garagardo Festa antolatu du-
te 'Herriari leial' plataforma-
ko kideek.

Edurne Soraluze



Pilotan eta areto futboleko bikain

Aurtengo infantil mailako klubaren arteko Pilota Txapelketako garaileak Gailurrerantz Kirol Elkarteko hiru pilotari izan dira: Mikel Nazabal, Xabat Otegi eta Iñigo Garmendia. Donostiako Loiola auzoko frontoian jokatu zuten bigarren fase honetako finala Eskoriatzako taldearen aurka. Eskoriatzakoek 16 tanto egitea lortu zuten, baina zaldibiarrek gailendu zitzaizkien.

Areto futboleko Goierriko txapelkun

Areto futboleko Goierriko txapelkunak dira Zaldibiako Lardizabal herri eskolako alebin neskek eta mutilak. Goierriko es-
kola kiroletako txapelketan Idiazabalgo Iparragirre taldeari irabazi zioten Lardizabal eskolako neskek (2-3). Lardizabalgo alebin mutilak Legorretako taldearen aurka jokatu zuten fina-
leko partidua; 3 gol sartu zituzten Legorretakoek, 5 talde zal-
dibiarrek. Partidu guztiak Ormaiztegi kiroldegian izan ziren
otsailaren 21ean.

Egunkariaren aldeko ekimenak

Orain dela hamabost egun inguru bildu zen herrian Egunka-
riaren aldeko herri batzordea. Bilera hartan hainbat erabaki
hartu ziren: Egunkariaren alde deitutako ekimenen bultzat-
zaile izatea, harpidetza kanpaina dela eta mahaiak jartzea,
eta martxoaren 29rako Zubi-Buru elkarteak Egunkariaren al-
de antolatu duen Mus txapelketari babes eta laguntza guztia
eskaintzea. Horrez gain, Egunkariak atera duen materiala he-
rrian salgai jartzeko asmoa dute talde horretako kideek.

Egunkariaren aldeko Mus txapelketa hilaren 29an

Aurreko alean genion moduan, otsailaren 22an jokatzekoa
zen Mus txapelketa martxoaren 29ra atzeratzeko erabakia
hartu zuen Zubi-Buru elkarteak. Hala, egun horretan eskura-
tutako diru guztia Egunkariari ematea adostu zen. Karteletan
argi adieraziko da Egunkariaren aldeko Mus txapelketa dela,
eta ohar hau irakurtzen duen guztiari dei egiten zaio egun ho-
rretan musean jokatzera hurbil dadin.

Egunkariaren aldeko mozioa onartu du Udalak

Martxoaren 13an onartu zuen Zaldibiako Udalak Egunkaria-
ren aldeko mozioa. Kontseiluak bidalitako mozioari, proiektu
horren alde emango diren laguntzen berri ematen zuen
puntua gaineratu zitzaion. Lehen zuen harpidetzaz gain, bes-
te bi harpidetza berri egiteko konpromisoa hartu zuen Udalak.



Herriko pilotariak

Zaletasun gutxi erakarri arren aurtengoan buru belarri hari dira pilotari gazte hauek. Herri mailan azkena San Migelatako txapelketa izan zen. Oraingoan, ordea, Udaberriko txapelketa. Denera 13 pilotari ari dira jokoan, bakoitz bere mailan sailkatuaz.

Kadete 3.mailan: Jon Barreiros, Ioritz Garmendia Irastorza eta Ioritz Garmendia Baztarrika.

Kadete 2.mailan: Luken Auzmendi, Imanol Olan eta Mikel Insausti

Jubeniletan: Harriet Arzailuz, Eñaut Sukia eta Patxi Altuna.

Afizionatutan: Axier Katalina eta Jon Galarraga, Rafa Zubizarreta eta Pako Garmendia, Julen Olan, Egoitz Salinas eta Joxe Mari Ruiz de Larramendi. Azken hau In-txaurrondoko taldearekin jotzen ari da utzita.

Jadanik bukatu dute lehen fasea, eta esan gazteenak, bigarren daudela sailkaturik denak ere, lehen postua eskuragarri dutela. Afizionatutan berriz, Axier Katalina eta Jon Galarraga izan dira beraien taldeko lehenak. Denera 5 taldetan banatuta daude eta orain talde guztietako hoberenak elkarrekin jokatu beharko dute. Beraz, txapelketan 5. postu hori lortu dute baina lehenak geratzeko aukera askorekin.

Rafa eta Pako Garmendiak beraien taldetik bigarren geratu dira. Horien postua 6. edo 10. na bitartekoa izango da.

Txapelketa hau bukatu ostean, hain ospetsua den Elgetako txapelketara itzuliko dira beraien lanak hobetu asmoz. Hemen ere gehientsuenak hartuko dute parte.

Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Urtero ohi den bezela, herritar denei egin zaie deialdia lehiaketa honetan parte hartzeko. Hona hemen bete beharreko arauak: Edozein kolore eta eratako lanak onartuko dira. Lanaren neurriak 45x65zm edo tamaina proportzionalekoak beharko dute izan. Gaia Lazkaoko San Prudentzio jaiak eta azalean idatzi beharrekoa honakoa da: 2003ko San Prudentzio Jaiak Lazkaon apirilaren 25etik maiatzaren 1era. Lazkaomendin, maiatzaren 3 eta 4an izango dira.

Lanak inoiz aurkeztu gabeak izan beharko du eta irabazleari 200 euroko saria emango zaio, beti ere, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko kalitate maila badute. Lanak Udaletxean aurkeztuko dira martxoaren 21 baino lehen. Lanak egilea nor den adierazi dezakeen inolako daturik gabe aurkeztuko dira. Honekin batera, kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsolak jarriko dira. Epaimahaiak martxoaren 28a baino lehen emango du bere erabakia. Saritu gabeko lanak, epaimahaiak erabakia emango duen egunetik kontatzen hasita, hamabost egunetako epean jaso ahal izango dira lanak aurkeztutako toki berean. Saritutalo lana Udalaren esku geldituko da; argitaratu, ezagutarazi eta abarretako eskubide guztiak berak izango ditu. Udalak aurkeztutako lanak zainduko ditu baina egoera onaren erantzunkizunik ez du izango, batez ere, euskarri gogorrean aurkeztu ez diren lanetan.

Beraz, lehiaketara aurkezte soilak oinarriak goitik behera onartzea suposatzen du.

Besterik ere badago Urretxura inguratuz gero. Hemen jubenilak banaka jokatu beharko dute kantxa guztian. Helduenak, berriz, binaka arituko dira. Axier Katalina eta Jon Galarraga, Rafa, Pako Garmendia eta Joxe Mari, Julen Olan eta Egoitz Salinas.

Garbi dagoena zera da, entrenamentu gogorak eginak direla eta animoz oso ondo daudela nahiz eta kanpoko erantzun handirik ez izan. Hala ere, bide honetatik jarraituz bere fruitua emango duela garbi dute. Txikienak

ere aste guztian zehar ari dira Unai Urretabizkaia pilotariaren esanetara entrenatzen. Denera 50 bat ume ikus ditzakegu gogoz eta ilusioz beteta.

Gauza guztietan bezela lan guzti honen atzean baten batek behar du izan zama guztia eramaten eta kasu honetan Javier Gelbenzu dugu entrenamendu eta papel guztien gainetik dagoen ardura-duna.

Aitor Tello

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



Txan Magoa eta Unai Elorriaga izan dira martxoko protagonistak



Txan Magoa martxoaren 8an gure artean izan genuen Kilometroak 03ren inguruan hila-bete honetarako antolatutako ekintzen artean. Larunbat arratsaldean udal kiroldegian erruz izan genituen bai umeak bai gurasoak. Txan Magoak ez zuen ez, inor gogaitu, umeen gustukoa ez ezik, gurasoen entretenigarri ere izan baitzen. Saioa txukun hasi zuen, are txukunago amaitu, bertan bildutako jende multzoari eta bereziki haurrei, euskara ahoan eta eguneroko bizitzan erabiltzera animatu baitzituen. Txan Magoaren saioak bi lan ezberdin izan zituen: batetik, hasieran burutu zuen bakarkako lana, bestetik, saio-lagun izan zituen haurrekin egin zituen magia probak. Batez ere, bigarren saio hau izan zen ikusleentzako barregarriena eta umoretsuena, bertan Txan Magoak bolondres faltarik ez baitzuen izan.

Saioaren bukaeran euskara ez dela munduko hizkuntzarik zaharrena, baizik eta magikoena adierazi zien han bildutako guztiei, eta *"zergatik? Bada, jakintsuenek ere ez omen dakite eta oraindik, euskara nondik datorren"* esan zuen Txanek. Horri, Kilometroakek aurrera egin behar duela eta euskarari bultzada bat eman behar zaiola gehitu zion.

'Artxila Motxila' hitz magikoekin bat baino gehiago aho zabalik geratu zen eta Raki animaliatxoarekin izan zituen gorabeherekin ume guztiak bere onetik aterata ibili ziren, poltsa barruan zegoen animaliatxo hura ezagutu nahian. Magia saioari amaiera emateko, *"Ameriketatik etorri berria naiz eta hango euskaldunen partetik goraintziak"* esanez eta Raki indio apatxe bihurtuz, amaiera eman zion magia saioari.



Unai Elorriagaren hitzaldia

Unai Elorriaga izan da hilabete honi dagokionez bederen, gure artean izan dugun beste pertsonaia. Ez magiari lotua baina bai memento honetan euskal idazleen munduari zuzenki atxikia gurean; eta kanpora begira, berriz, bere literatur lanak sari goseak. Elorriagaren hitzaldia Maizpide Euskaltegian egin zen eta beste modu batera merezi ez zuen legez, literatur munduan oso ezaguna den Xabier Mendigurenek eman zion hasiera hitzaldiari. Ondoren Unai Elorriagak hartu zuen hitza 'Sprako tranbia' liburuaz aritzeko. Baina, liburuaren aipamenarekin hasi aurretik, Euskaldunon Egunkariaren egoeraren aipamena egin nahi izan zuen, Elorriaga bera ere, aipaturiko egunkariaren kolaboratzaileetako bat baitzen.

Honen ondoren eta hitzaldia girotzeko, bertan ziren entzuleekin broma bat edo beste egin zuen. Sari Nazionala eman dioten liburuaren aipamen sakona egin zuen, gaiari gogotik helduta aritu zen eta liburuari buruzko xehetasun ugari eman zuen.

Bere jarduna amaitu zuenean, entzuleen eta idazlearen arteko galde-erantzun txanda izan zen. Honetaz gain, dagoeneko kalean duen 'Van't Hoffen ilea' bigarren eleberriaren inguruko aipamen bat edo beste ere egin zuen, aipatu eleberri hau zela medio, idazle gazteentzako Igartza literatura beka eman baitzioten iaz. Beraz, argitaratu aurretik saritua izan den lana da dagoeneko kalean dena.

IN AUSTI



KARROZERIA

N-1 errepeidea, lurre auzoa
© 943 88 43 01 OLABERRIA



Oriamendi kalea, Etxuri etxea

ILEAPAINDEGIA

Zatoz eta aurkitu zure
estiloa
Tratamenduak
Kortek
Kolorak
Moldeatuak

ESTETIKA ZENTRUA

Biodepilazioa:
Zirukulazioarentzat onuragarria
Ilea ahultzen du
Azala garbitzen du
Aurpegiko tratamenduak
produktu naturalekin

BEASAIN

Tel./Faxa: 943 88 32 52

ZINEA

LEGORRETA:

Martxoak 20: 'Miedo y asco en las Vegas', 20:30ean, Herri Zineman.

Martxoak 27: 'Plata quemada', 20:30ean, Herri Zineman.

ITSASONDO:

Martxoak 21: 'Profundo Carmesi', 22:00etan, Ertotxen.

ORDIZIA:

Martxoak 17: 'Atrapame si puedes', 19:30ean, Herri Antzokian.

Martxoak 18: 'Atrapame si puedes', 19:30ean, Herri Antzokian.

GOIENIZ

Martxoak 20: 21:00etan, Usurbe antzokian.

'La comedia de la inocencia'

Raoul Ruiz
(Frantzia, 2000)

Camillek bederatzirte ditu, gurasoei bizimodu eroso darama eta bideo kamara batez inguruko guztia jasotzen du. Bere urtebetez egunean galdera inuxente batek harri eta zurutziko du bere ama Ariane: Aizu, ama eta zu non zinen ni jaio nintzenean? Halako batean Camillek amari sekula ez diola ama deituko esaten dio eta hortik aurrera...

SEGURA:

Martxoak 27, Xabier Silveira eta Xabier Legarretaren bertso-saioa, 19:00etan, Elorripen. Ondoren, bertso-afaria. VIII. Iparra-Hegoa ekitaldien barnean.

Martxoak 27, Mikel Telleriaren kontzertua, 21:00etan, Usurbe Antzokian.

hitzaldiak

BEASAIN:

Martxoak 18, Jubilazioaren inguruko gaia landuko du Gonzalo Berzosa gerontologoak, 19:00etan, Udaleko Batzar Aretoan.

musika

ORDIZIA:

Martxoak 21, Reverendo Parker rock and roll taldearen kontzertua, 22:30ean, Sugaar tabernan.

SEGURA:

Martxoak 24, Nafarroari buruzko hitzaldia eskainiko du Josu Txueka EHUKo irakasleak, 19:30ean, Kultur Etxean, VIII. Iparra-Hegoa ekitaldien barnean.

AZPEITIA:

Martxoak 22, Pantxo eta Peioren kontzertua, 22:30ean, Izarraitz pilotalekuan.

BEASAIN:

Martxoak 23, Hodeiartz koralaren kontzertua Andra Mari Zeruratuaren Parrokian, 19:00etan.

Martxoak 25, 'Itoitz, gaurko egoera' hitzaldia eskainiko du Koordinakundeko kide batek, 19:30ean, Kultur Etxean, VIII. Iparra-Hegoa ekitaldien barnean.

antzerkia

BEASAIN:

Martxoak 21, Ttamtaka taldearen 'Ekaitz txorien esku' antzezlan, 22:15ean, Usurbe Antzokian.

bertsoak

BEASAIN:


Martxoak 14, Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Sustrai Colina eta Xabier Silveira. Gai jartzailea Irati Goikoe-txea. Eñaut Agirrek Neguko Bertsopaper Lehiaketako bertso irabazleak abestuko ditu. 22:30ean, Usurbe Antzokian.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- * Tximini eta egurrezko ekonomikak
- * Berogailuak
- * Iturgintza
- * Zeramika erakusketa
- * Bainuko altzariak
- * Erreforma osoak



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

erakusketak

BEASAIN:

Martxoaren 14tik 23ra: Argizpi Argazkizale Elkartek eta Aizkorri Mendizale Elkartek antolatutako argazkia lehiaketaren argazkiak ikusgai Usurbeko erakusketa aretoan.

ikastaroak

ORDIZIA:

Martxoaren 17tik apirilaren 14ra: Lehendik Internet ikastaroa egin duten emakumezkoek zuzendutako Emaweb ikastaroa, astelehenetik ostiralera. Goierri Lanbide Eskolan eman behar da izena. Begonia (943880062-66).

mendi irteerak

ORDIZIA:

Martxoak 16, Ordiziako Mendizaleak taldeak antolatuta, haurrentzako eskualdeko ibilaldia Lazkaora.

Martxoak 23, Ordiziako Mendizaleak taldeak antolatuta, Lizarrusti Ordizia ibilaldia.

Erlezain elkartearen argazki lehiaketa

Gipuzkoako Erlezain Elkartek lehen argazki lehiaketa antolatu du. Lehiaketaren asmo nagusia erlezaintzaren indartze eta gizarteratzea da, beren jarduerekin, zein erlearen zainketa ereki sortzen diren ingurumen onurak azpimarratu asmoz.

Parte hartzaile bakoitzak gutxienez 2 argazki eta gehienez 8 argazki aurkeztu beharko ditu. Bakarka edo bilduma moduan. Argazkien gaiak, izadia, erlea, eta erlezaintzarekin lotutakoa izango da. Edozein argazkilarik parte har dezake. Argazkiak koloretan nahiz zuri beltzean izan daitezke. Argazkiak gehienez 20x30 zmk formatoa izango dute eta 20 x 30 zm-ko kartulina euskarrietan aurkeztuko dira. Lanak izenpetu gabe azalduko dira, identifikazioa zenbaki bidez eta sobre itxi batetan egingo da. Sobre hauek Zegamako Udaletxean edo Gipuzkoako Erlezainen Elkartearen aurkeztu beharko dira, martxoaren 31 baino lehen.

Hiru argazki sarituko dira. Lehenengoak 300 euroko saria jasoko du, bigarrenak 200 eurokoa eta hirugarrenak 100 eurokoa. Edozein zalantza argitzeko: 943 801351 (Eduarne), 615 795433 (Joxe).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Martxoak 15-16: Lournaga

(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Martxoak 22-23: Arriola

(Plaza Nagusia, 10 - Ordizia). 943 880628.

OBRA PROIEKTUAK

Etxe berriak eraikitzeko
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza

LDA arkitektura 649 95 94 14
GOIERI ETA TOLOSALDEAN

GERTU abokatuak



• AHOIKULARITZA JURIDIKOA
• ENPRESA ZERBITZUAK
• ASEGUURAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

IKASTEK AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 BEASAIN
☎ 943 160 120

ESKOLA LAGUNTZA

- ✳ Lehen hezkuntza, DBH
- ✳ Batxilergoa
- ✳ Moduluko, Zikloak
- ✳ Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- ✳ Marrazketa teknikoak
- ✳ Fisika
- ✳ Matematika
- ✳ Teknologia

TAILERRAK

- ✳ Ortografia, Idazmena
- ✳ Irakurmena, Ulermena
- ✳ Matematika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- ✳ Atentzioa
- ✳ Ohiturak, Metodoak
- ✳ Emozioen kontrola

www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Etxebizitzak

salgai

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai. Inguru berria dauka. Sukaldea, egongela, bainugela, hiru logela eta trasteroa. 699822469.

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai. 80 metro koadro, 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde handia, terraza eder bat, garajea eta ganbararekin. 943370335 / 647142700.

➔ Idiazabalen etxe adosatua salgai, jardinarekin eta garajearekin. 210.000 euro. 669827096.

➔ Seguran etxe adosatua salgai terrenoarekin. Berria. Oso polita. 699827096.

errentan eman

➔ Garagartza plazan pisua alokatzen da. 670086942.

➔ Pisua alokatzen da Ordizian. 653011954.

➔ Ordiziako Ordizia kalean (taxi geltokiaren ondoan) pisua alokatzen da. 943882928. Gaue-tan deitu.

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 9434533981.

konpartitu

➔ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

➔ Gazte batek pisua konpartitu nahi du Beasain, Ordizia, Lazkao edo inguruetan. Lander. 653710653. Arratsalde-tan deitu.

➔ Pisua konpartitzen da Beasainen, Oriamendi kalean, Igartzaren par-ean. 943027799 edo 656761030. Jordano edo Sandra. 20:00tatik aurrera deitu.

Garajea

salgai

➔ Beasaingo Erauskin kalean 100 metro koadroko garajea salgai. Prezio interesgarria. 603931449.

➔ Beasaingo Nafarroa Etorbidea 33 kalean 30 metro koadroko lokala salgai. Beharrezko instalazioak dauzka, erai-kuntza eginda dago. Prest irekitzeko. 943882106 / 943806012.

Animaliak

salgai

➔ Zortzi hilabeteko astakume arra salgai. 943800009. Xanti.

➔ Bi txekor limousin 10 hilabetekoak salgai. Oso onak. 943800490.

Bestelakoak

salgai

➔ Terreno bat erosi nahi da. Ordeka samarra, eta borda badu hobe. Lazkaomendin, Gaintzan edo Zaldibian. 943161828.

➔ Urbasako kanpinean karabana salgai, bere abantzearekin. 943187314.

➔ Sutarako egurra salgai. Bi metrotan moz-tua. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera deitu. 943880905.

➔ Litera salgai 90cm-koa, eskailerakin, burdinezkoa, zuria. Bi edredoi eta bi koltxoi opari. Estreintzeko daude. 601 euro. 943881380.

➔ Bi akumuladore be-rogailu salgai. 300 euro. 652755173.

➔ Egurrezko atea er-di prezioan. 652755173.

➔ Pigini markako akordeoia salgai. Intere-satuek deitu telefono honetara: 943886120 (20:30etik 22:00era).

➔ Masajeak emateko makina salgai. 652722638.

➔ Ampeg amplifikado-rea salgai. 150W-ko po-tentzia, combo. 659754483.

➔ Renault Megane Coupe autoaren lau llanta kubiartekin salgai. Egoera onean. Bes-te auto batzuentzat ba-liagarriak. 943885815 (gauez).

➔ Logela osoa salgai. Oso egoera onean. 1,50x2m-ko ohea, bi

mesila, komoda, ispilua eta leku handiko armai-rua. 1.000 euro. 619311255.

➔ Porterian dagoen pisua eskaintzen da ko-munitateko lanak egite-aren truke. 943163049 / 943880413.

➔ Ezkon jantziak salgai. Emakumezkoaren eta gizonezkoarena. 44 neurrikoak. 619364749.

➔ RF4 Fisher acelera-tor markako eski be-rriak salgai. 176 mm-ta-ko altuera. Tirolia TD8 fijazioak. 615746760. Iker.

➔ Bi sofa salgai, ohe egiten direnak. 943161745. Anttoni.

➔ 674/70 zaldiko Lan-borghini kross markako traktorea salgai. Kabi-na, pala-tenias doble efektokoa. 2.500 ordu. Egoera onean. 943881802.

➔ Behiak jezteko ma-kina salgai. Cerezo markakoa. Prezio one-an. 943180426.

➔ Sofa, bi eserleku eta mahai bat saltzen dira. 300 euro. 943027790.

errentan eman

➔ Garraio titulua alokatuko nuke. 645715578.

afizioak

➔ Golf-zaleen bila na-bil Goierri, zelai bat alokatzeko eta jolaste-ko. 943886610.

➔ Trikitixa taldea osa-tzeko baxu jolea behar da. 680328320. Iñaki.

galdutakoak

➔ Sakeleko telefono koloreduna aurkitu da Larraitzen. Galdetu Be-asaingo udaltzaingoa.

Ibilgailuak

salgai

➔ Gas gas markako trialera salgai. 250cc-koa. 660459458.

➔ Citroen Berlingo autoa salgai. SS-AY. Ondo zaindua. 605772624.

➔ Volkswagen Polo 1.9. D autoa salgai (6 urte), Egoera onean. 659987308.

➔ Nissan Almera sport 2.200 diesel in-yeccion autoa salgai. 10.000 km. 2 urte ta er-di. Garantia. 649324459.

➔ Kawasaki GPZ 500 motorra salgai. Egoera onean, neska batek era-bilia. 646272522.

➔ Peugeot Boxer mar-kako furgoneta salgai. SS-BK. Nahi izanez ge-ro, barrutik prestatua. 669884649.

➔ Opel Corsa marka-ko autoa salgai. Egoera onean. 943887337. Iban

➔ Suzuki Katana mar-kako motoa salgai. Pre-zio egokia. 943887337. Iban.

➔ Citroen BX SS-AD markako kotxea salgai. 750 euro inguru. 943883036. Gaue-tan deitu.

➔ Valver 410 markako karabana salgai. Sei pertsonentzako edukiera du eta egoera onean dago. Bere prezioa 1.000 eurokoa da. 943085405 eta 600372425.

➔ Peugeot Boxer markako furgoneta salgai. Motorra berria dauka. 943881982.

➔ Piaggio markako motoa salgai. Egoera onean. 680641401. Aitor.

Lana

eskaintzak

➔ Neska eskaintzen da goizetan haurrak zintzeko. 679556500.

➔ Hogei urteko gazte bat eskaintzen da igeltsero, arotz edo bestelako lanetan aritzeko. Jossu. 943730640 / 639983891.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak zaindu, edota garbiketa lanetan zein dendetan lan egiteko. 20 urte. Esperientziaduna. 690281452.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. 690191457.

eskaerak

➔ Pertsona bat behar da Beasainen haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 25 urtetik gorakoa. 655733823.

➔ Kamarera bat behar da asteburuetan lan egiteko. Euskalduna. 943880044.

➔ Ogia banatzeko balantzailea behar da. 943084189 / 651706818.

➔ Goierri erreabilitazio zentzurako fisioterapeuta behar da. 943881271.

➔ Neska euskalduna behar da Ataungo taberna batean arratsalde ordu batzutan lan egiteko. 943180019.

➔ Neska euskalduna behar da Gaintzan haurrak zaintzeko. 943889307/943888574. Gaeuz deitu.

➔ Ordiziako taberna batean lan egiteko tabernariak behar dira. Interesatuok bidali zuen curriculumak eta argazkia Ordiziako 134 Posta Kutxara.

➔ Ileapaindegirako neska behar da. Kurrikuluma bidali Beasaingo 32 posta kutxara.

➔ Neska euskalduna behar da Lazkaoko taberna batean lan egiteko arratsalde. 649052806.

Laguntzailea, agentea edo Justizia ofiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzitegietan lana. Adozek informatzen du. 943444509.

Aireportuetako kontrolatzaileak. AENA-ren deialdiak udaletan. Eskakizuna: diplomatua edo lizentziatua. Erdi mailako ingelera. Adozek informatzen du. 943444509.

Gida-eskola irakaslea. Langabeziarik gabeko lanbide batean lana. Diru-sarrera oparoak. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

Basozaina. Euskal Herriko parte eta Natur Babesguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola graduatua. Presta zaitez. Adoz 943444509.

teko. Eskakizuna: Eskola Graduatu. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

Suhiltzaileak. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza ezinhobeak. Betebeharra: Eskola graduatua. Adozek informatzen du. Adozek informatzen du. 943444509.

Garraiolaria. Garraiolari profesionala izateko gaitze titutua lor ezazu. Adozek informatzen du. 943444509.

Administrari laguntzaileak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola graduatua. Presta zaitez. Adoz 943444509.

Udaltzainak. Bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. Eskakizuna: Eskola Graduatu. Presta zaitez. Adoz. 943444509.

Liburutegi laguntzaileak. Uzenbait udaletan. Laster deialdiak. Adozek informatzen du. 943444509.

Administrariak. Teknikoak zein laguntzaileak. Bertako udaletan deialdiak zabalik. Adozek informatzen du. 943444509.

Gidariak, elektrikiariak, atezainak, langileak... Bertako udaletan subalterno bezala lan egiteko. Adozek informatzen du. 943444509.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

SOLDATZAILEA

Goierri. Erref. 96904/3

SUSTATZAILEAK

Goierri. Erref. 96987/2

ALTZAIRU MONTATZAILEA

Goierri. Erref. 97231/3

KLINIKA LAGUNTZAILEA

Ordizia-Tolosa. Erref. 97873/1

HIRU BILTEGIZAIN

Tolosan. Erref. 97878/1

LANGILEA

Tolosan. Erref. 97886/1

MEKANIKOA

Villabonan. Erref. 97210/3

GINEKOLOGOA

Donostialdean. Erref. 97707/2

ERRESIDENTZIARAKO ZUZENDARIA

Donostialdean. Erref. 97560/2

KONTSULTOREA

Donostialdean. Erref. 96755/3

KOMERTZIALA

Donostialdean. Erref. 96387/3

ESTETIKA KOMERTZIALA

Donostialdean. Erref. 96245/3

DEKORATZAILEA

Donostialdean. Erref. 95648/2

GESTIO APLIKATUAN ADITUA

Donostialdean. Erref. 95770/3

BI GALDARAGILE

Donostialdean. Erref. 97399/1

➔ 'Neska edo emakume', denbora libre eta lanerako gogo baduzu, deitu 9etatik 13etara 943214228 telefono zenbakira.

➔ Harategian eta arraindegian lan egiteko neskak behar dira Beasainen. 657795967.



Lazkaotarrak 1960. urte inguruan

Lazkaotar lagun talde hau mendira joan eta Zegamako estazioan ateratako argazkia da.

Atzeko ilaran, ezkerreko aldetik hasita: Jose Luis Arratibel, Bernardo Zunzunegi, Arantxa Bereziartua, Eukeni Lasa, Marixabel Aldasoro, Anparo Zufiria, Jabier Larrañaga eta Alberto Ormazabal.

Erdiko ilaran eserita: Mari Karmen Galparsoro, Joxe Joakin Irizar, Xanti Auzmendi, hurrengo hirurak ezezagunak, Maria Pilar Zunzunegi, Ana Mari Agirre eta Ana Mari Aldanondo.

Aurreko ilaran: Mari Karmen Urdangarin, Pili Iriarte, Enrike Askasibar, Jesus Mendia eta Jose Inazio Zufiria.

h

Zure seme-alabak ikusten baduzu:
Nahi duena esateko zailtasuna agertzen baditu
edo ez bazaio ulertzen; soinuak ez baditu egoki
ahozkatzen edo totelka egiten badu...

**Mintzaera, berba eta ahotsaren gorabeheren
tratamendua, diagnostikoa eta prebentzioa**

Nagusia 2 1^oEsk. 20200 Beasain Tfnoa 605 71 69 15 - 655 73 67 35

afots Logopedia

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

BIAI-ON-

ARROZTEGIA

**Koltxoak
Somierak**

**Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak**

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Beñat Garaialde

arotza

tel.: 635 722 378
BEASAIN

- ✓ Berrikuntzak
- ✓ Ateak
- ✓ Atariak
- ✓ Armairu enpotratuak
- ✓ Zoruak
- ✓ Leihoak
- ✓ Apalak...

Berehalako arreta
Prezio
interesgarriak

**“Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak”**

K. Nagusia 35
☎ 943 88 77 58
BEASAIN

Elosegi, 14
☎ 943 88 72 79
LAZKAO

Sta. Maria, 19
☎ 943 16 00 44
ORDIZIA



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Lan bertikalak S.L.

Kanaloia
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak

...

Tfnoa.: 943 18 04 39
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

IKENA

DEKORAZIOA - ERAIKUNTZAK

Martina Maiz 3 of. 3 20200 Beasain Gipuzkoa
Tfnoa: 943 08 53 10 Faxa: 943 16 11 65

2003
ostre 46

10 11

igeltseritsa
beiragintza
zurgintza, meto
iturgintza
elekttrizitatea
pintura
eskaola
berogintza
alarmak
lorazantza
hosgabetzeak
iragazkaizpenak
mobleria,
ekintza, juridikoa
aholkularitza, proiektuak
diseinu, proiektuak
dekorazio,
logelak
egongelak
aulkiak
mahaiak
besaulkiak
besaulkitzako, logelak
lanparak
koadroak
mahai, tresneria



OHARRA:
IKENAREN
Ordiziako
denda ikusil

2003
ostre 46

13 1

Sukalderako aulkiak ✓
Jangelarako ✓
Tertzerako ✓
Logelarako ✓
Sukalderako mahaiak ✓
Jangelarako ✓
Bainugelarako aulkitxoak ✓
Baxera karratuak ✓
Baxera barobilak ✓
Baxera klasikak ✓
Kafe, jokuak ✓
Te, jokuak ✓
Kikarrok ✓
Kikarrok ✓
Katilak ✓
Beirak ✓
Mahai, tresnak ✓
Bandejak ✓
Txarrok ✓
Lorontziak ✓
Sukaldeko erlojuak ✓
Iratzergailuak ✓



Egongelarako alfombrak ✓
Logelarako ✓
Haurrentzako logelarako alfombrak ✓
Koadroak ✓
Mihiseak ✓
Erretratu markak ✓
Koltxoak ✓
Oheak ✓
Sofak ✓
Ispiluak ✓
Komodak ✓
Apain mahaiak ✓
Apalak ✓
Liburu apalak ✓
Helduentzako logelak ✓
Gazteentzako ✓
Haurrentzako ✓
Kurxak ✓
Erretilak ✓
Izarok ✓
Zamuturiak ✓
Kuxinak ✓
Armairuak ✓
Sinfonier-ak ✓
Galan-ak ✓
Etixerako osagarriak... ✓



ikena

31/03/01

31/03/01

31/03/01

31/03/01

31/03/01

31/03/01

17 astelehena, hamarretan,
neurriak hartzera pasako dira.